

AIARALDEA *hemen*



OSCAR ACEBEDO HERNANDEZ:
**“Asko engantxatzen du
‘crossfitak’, eta pila bat igotzen du
norberarekiko kofiantza”** 24-25 or.

NAROA YARRITU GARCIA:
**“Herri kirolek badute beste
kirolek ez duten zerbaít:
harreman estua”** 22-23 or.



**“Greba da
dugun tresnarik
eraginkorrena”**

URDUÑA 6-7
**Urduñako I. Jaialdi
Multikulturala egin zuten
irailaren 17an**
Etorकिनen eskubideen aldeko
elkarte berri batek antolatu
zuen ekimena

LAUDIO 8-9
**‘Etxe Arrosaren’ fatxada
kolorez aldatu dute**
Aiaraldea Komunikabideak
zenbait bizilagunekin hitz
egin du eraikinaren historia
ezagutzeko asmoz

KULTURA 18
**Laura Guerrero Lorenzo
argazkilariak erakusketa
berria prestatu du**
Collageak baliatu ditu
emakumeen sentimendu eta
aldarriak islatzeko

Arabarako zure ideia aurkezteko garaia da.
Irailaren 5etik - 30era.
Informazio gehiago araba.eus

2023ko gure aurrekontuak
**Batu. Erabaki.
Egin dezagun Araba.**

araba **álava**
foru aldundia diputación foral

AIARABIKE
LAUDIO

2023 DENBORALDI BERRIA

- Prezio bereziak 2022ko gaman stockean
- Denda eta tailer espezialista edozein e-bikeren mantenuan

INFO@AIARABIKE.COM 946 565 449 GOIKOPLAZA 24, LAUDIO (EROSKITIK GERTU)

HOTEL ORDUÑA PLAZA

Balneario

ZURE
EZKONTZA
GUREKIN

XVIII.mendeko eraikuntza klasikoa
Aretoaren edukiera: 250 pertsona
Gonbidatuentzako ostatua
Ezkontza zibiletarako barruko patioa eta koktela
Ezkontzetako gure dossiera: www.hotelordunaplaza.com

Foru plaza, URDUÑA Tel. 945 56 90 38
info@hotelordunaplaza.com www.hotelordunaplaza.com

herriz herri

Aiaraldea

Aiaraldeko Emakumeen Jabekuntza Eskolak hasi berri den ikasturteko jarduerak aurkeztu ditu Artziniegako Udalean. Hitzaldiak, zinema-proiektzioak, topaketak... orotariko ekintzek osatzen dute Laia Aiaraldearen programazio berria.

Ikasturte berriko programazioa aurkeztu du Laia Aiaraldeak



Artziniegako Udaletxean elkarrekin Aiaraldeko udal-ordezkariak programazioa aurkezteko. Aiaraldea.eus

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Artziniegako Udaletxean aurkeztu zuen irailaren 11n Laia Aiaraldeak hasi berri den 2022-2023 ikasturterako jardueren programazioa. Bertan izan ziren Laudio, Amurrio, Okondo, Aiara eta Artziniegako udal-ordezkariak, baita Arabako Foru Aldundiko eta Aiarako Kuadrillako ordezkariak ere.

Aurtengoa Aiaraldeko emakumeen berdintasunerako eta jabekuntzarako eskolaren seigarren edizioa izango da, eta, pandemiak markatutako urteen ostean, guztiz presentziala izango den eskaintza batera egin du jauzi berriro. Halaber, jarduerak online formatuan egiteko aukera zabalik dagoela gogorarazi dute Laia Aiaraldeatik, "jabekuntza eskola honetan ikasten eta partekatzen jarraitu ahal izateko".

Orotariko jarduerak

Ekintzaz beteta dator Laia Aiaraldearen edizio berria: tailerrak, zineforumak, hitzaldiak, topaketak, irakurle klubak, erakusketak... orotariko ekintzek gorpuzten dute datozen hilabeteetako programazioa. Horien artean larunbat honetan ospatuko duten Aiarako Emakumeen Gelako bosgarren urteurrena nabarmendu dute, baita irailaren 24an ospatuko den Artzifesta Feministaren bigarren edizioa ere.

Eskualdeko herritarrek txeko postontzian jasoko dute datozen egunetan programazioa biltzen duen liburuxka.

Artzifesta feminista

Jaialdi feministaren bigarren edizioa izango da Artziniegako mugarrir nagusietako bat. Irailaren 24an jarri dute hitzordua. Goizean Zehar-Errefuxiatuekin

Tailerrak, zineforumak, hitzaldiak, topaketak, irakurle klubak, erakusketak... orotariko ekintzek gorpuzten dute datozen hilabeteetako programazioa

erakundeak eskaintako hitzaldia izango da jardueraren nagusia. Arratsaldean, tuper bazkaria eta bingo musikatuaren ostean, musika eskaintzaren tartea iritsiko da. La Otrak kontzertu akustikoa eskainiko du, eta 19:00etan Aiaraldeko Batukada Feministak herriko kaleak girotuko ditu. Iluntzean, 20:30etatik aurrera, Alarma Morea, Tongo eta Sor DJ igaroko dira jaialdiko oholtza gaineratik, festa giroa goizaldera arte luzatzeko asmoz.

Laia Laudio

Eskualdeko jabekuntza eskolak beste mugarrir garrantzitsu bat izango du irailaren 23an. Izan ere, egun horretan aurkeztuko dute Laia Laudio, Lamuzako Lezeaga Aretoberrian. Bertan aurkeztuko dute ikasturteko programazioa, bai eta eskola aurrera eramateko funtsezko zatjoduten Berdintasun Kontseilu berria

ere. Laudioko Jabekuntza eskola eskualdeko gainerako udalerriekin erakoordinatua arituko da.

Haziz doan egitasmoa

Laia jabekuntza eskolak 2017an hasi zuen bere ibilbidea, eta geroztik etengabeko hazkundearekin egon da egitasmoa. 2021ean 419 jardueraren egin zituen Laia Araba mailan, eta 11.766 lagunek hartu zuten parte orotara. 2020ko datuekin alderatuta, parte hartzeak %42 egin du gora, eta ekintza kopuruak %31. Arabako Foru Aldunditik balioan jarri dute jabekuntza eskolaren eraldaketa eta hazkundea: "Zifra horietan ikusten da, ikasturte ikasturte, goranzko bilakera izan dela 2017tik, bai jardueraren proposamenean, bai bertarantzeko proposamenean, gaur egun arte. Beraz, hori da aurrera egin jarraitzeko egiteko modua eta lan egiteko modua".

Aiaraldea

Akordioa lortu dute Arabako metalgintzan, eta greba bertan behera utzi dute

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arabako metalgintzako sektorean hasi behar ziren protestak bertan behera geratu dira CCOO, UGT eta LAB sindikatuak astelehenean aurreakordioa lortu ostean. ELAk uko egin dio agiria sinatzeari, bere ustez, ez duelako KPIa bermatzen eta hobekuntza eskasak gutxiengo batentzat direlako.

Ordea, LAB sindikatua aburuz, hainbat aurreapen egon dira, besteak beste, hurrengoak: 8 orduko jardunaldi jaitsiera; soldata igoerak; atzerapenak; igoerak eta KPI-aren berrikuspena hitzarmena-

ren amaieran, antzinatasuna ere igoerei lotuta egotea (izoztuta dago 2018tik); izaitezko bikote eta bikote ezkonduen berdintzea baimenetan; medikurako laguntze baimenak Osasun Zerbitzu Publiko guztietara zabaltzea (orain arte soilik Osakidetzarako ziren); eta, azkenik, baimen moztetan lehen eguna lan eguna izan beharra jasota egotea testuan.

Gauzak horrela, gaur, bihar eta etzi Araban deituak zeuden greba egunak bertan behera geratu dira. Nabarmentzekoa da asteazkenean eta ostegunean Laudion eta Amurrion piketeak eta mobilizazioak aurreikusita zeudela.

Hiltegiaren proiektuak erakundeen babesaz izango duela uste du SOS Baserriak plataformak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Jose Antonio Gorbea SOS Baserriak plataformako kideak harridura azaldu dio Aiaraldea Komunikabideari Vocento taldeak argitaratutako informazioaren harira. Izan ere, komunikazio talde horrek albistea zabaldu du adierazteko eskualdeko proiektuak ez duela babes politiko nahikorik.

Berez, Gorbearen adierazpen horiek pasa den astean Eusko Legebiltzarreko Jasangarritasun, Ingurumen eta Ingurune Naturalaren Saileko Batzordean egindako agerralditik atera ditu Vocentok. Baina, babes politiko falta salatu bazuen ere, Gorbeak iritzi positiboarekin amaitu zuen batzordean: "Uste dugu

proiektuak edozein egitasmo pribatuk jaso dezakeen dirulaguntza guztiak lor ditzakeela. Ez gehiago, ekimen pribatua baita, baina bai ahal duen guztia, babes politikoa egon daiteke eta".

Gorbeak azpimarratu du plataformak lan egin duela bere proiektua ez politizatzeke, eta espero dutela adostasuna sortzea alderdien artean. "Hiltegia ez ezik, haragia zaitzeko gela ere aurreikusi du proiektuak eta hori ezinbesteko tresna da eraldaketarako eta eskualdeko ekoizleentzat", aipatu du Gorbeak, iniziatibaren garrantzia nabarmentzeko.

Berez, maiatzean egin zuten publiko proiektua: 1,5 milioi euro balioko duen hiltegia eta 8 eta 10 lagunei lana emango diena.

Uzta bikaina iragarri dute Aiaraldeko txakolin ekoizleek



Lehortek zailtasunak ekarri dituen arren, uzta bikaina aurreikusten dute ekoizleek. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Arabako Txakolina jatorri deiturako ekoizleek irailaren 24ean eta 25ean dira uztarekin hastekoak. Horrela iragarri dute azken asteetan mahatsen heldutasuna eta iragarpen meteorologikoak aztertu ostean.

Badira bilketarekin datozen egunetan hasiko direnak; mahats barietate goiztiarrenak ekoizten dituzten horiek, hain zuzen ere. Izan ere, azken egunetako hego haizeak asko lagundu du mahatsaren heldutasunean. Halaber ekoizpen totalaren %8 dira bakarrik mota horretako mahatsiak, eta gainerako %90 irailleko azken astean murgilduko

dira uzta sasoian bete-betean. Hori dela eta, ohikoan baino 15 egun lehenago abiatuko da uztaren gehiengoa. Beste urte batzuetan urriaren bigarren hasieran hasi izan da denboraldia.

Uzta bikaina

Zailtasun ugariarekin aurkitu dira Aiaraldeko txakolin ekoizleak aurten, nagusiki udako lehorte luzea. "Poz bakarra duela hiru asteko euritea izan zen, non metro koadroko 12 litro ur bildu ziren", azaldu du Jose Antonio Merino jatorri deitura elkarteko idazkariak.

Lehortearen eta tenperatura altuen eraginez, mahatsaren tamaina neurri idealen azpitik dagoela azaldu du Merinok; edonola ere, mahatsien osasuna "paregabea" dela na-

barmendu du: "Ez Botritisak ez Mildiua, gaixotasun endemikoak direnak, ez dute agerpenik egin ur falta horren ondorioz".

Hori dela eta, txakolin produkzioa "aparteko mailetara" iristea aurreikusten dute, jatorri deituran inoiz egon diren produkzio onenetatik gertu. Uzta urriaren amaierarako egongo da jasota, eta dena ondo bidean, urtarrileko lehenengo astean hasiko dira lehenengo ardoak dastatzen.

Komertzializazioak ere gora egiten jarraitzen duela azpimarratu du Merinok. Espainiako Estatuko salmentak pandemia aurreko mailara iristear dade, eta esportazioek urte hasieratik egin zuten gora nabarmen.

open
your mind
language school

Cambridge Assessment
English

MATRIKULAZIOA

INGLESA + FRANTSESA + ALEMANA

Irlandan, Frantzian eta AEBn murgiltze programak



herriz herri

Urduña

Elkartasun ekimenek 11.000 euro bildu dituzte Ataxia Telangiektasiaren ikerketara bideratzeko



AEFATen aldeko jaialdia egin zuten ekainean. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Elkartasun uholdea jaso du Ataxia Telangiektasiaren aurka borrokatzen duen AEFAT elkarteak Urduñan.

Herritar talde batek gaixotasun arraro honen ikerketara dirua bideratzeko AEFAT jaialdiaren lehenengo edizioa antolatu zuen ekainaren 24 eta 25ean, Reincidentes, ETS, Modus Operandi eta Moonshine Wagon taldeen laguntzarekin. Elkartasun jaialdiak 5.500 euro bildu zituen guztira, elkartetik jakinarazi dute.

Antolatzaileak oso pozik azaldu dira emaitzarekin Aiaraldea Komunikabideari adierazi diotenez, eta Urduñako herritar, elkarte eta Udalaren ekarpena eskertu dute ere: "Horrelako el-

Ekainean ospatutako AEFAT jaialdiaren lehenengo edizioak eta UrduFolk jaialdiko txosnak 11.000 euro bildu dituzte AEFAT elkarteari emateko

kartasun ekimen bat antolatze-ko guztion parte hartzea ezinbetsekoa da, eta hori lortu dugu Urduñan". Aitortu dutenez, bildutako diruaz gain, gaixotasuna bera ere asko ezagutarazi da, eta hori "positibotzat" jo dute: "Medio askok jaso dute Urduñan Ataxia Telangiektasiaren ikerketa bultzatzeko ekimenen berri, eta horrek gaixotasun arraro hau ezagutarazteko balio izan du". Emaitza ikusita, hurrengo egitasmoa diseinatzeko hasi direla jakinarazi dute antolatzaileek, eta espero dute aurki horren berri ematea.

5.500 euro UrduFolken

Iriala hasieran ospatutako UrduFolk jaialdiak ere txosnatik ateratako dirua AEFAT elkarteari bideratu dio, gaixotasunaren ikerketarako. Orotara 11.000 euro jaso dira hirian.

Amurrio

Megatech enpresako grebak lau ordu iraun zituen, UGTk eta LABek aurreakordioa lortu zuten eta



Erabateko jarraipena izan zuen grebak asteartean. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Megatech enpresako greba bertan behera geratu zen lau ordu iraun eta gero. Izan ere, ez dute aste honetarako aurreikusitako hiru eguneko lanuztea egingo, UGT eta LAB erakundeek aurreakordioa sinatu zuten eta, konpainiako zuzendaritzarekin. ELAk ez zuen gauza bera egin, bere ustez ez baita nahikoa izan lortutakoa.

Gauerdian proposamena

Astelehenean 11:00etatik 20:00ak arte negoziatu ostean, gatazkako bi aldeek ez zuten adostasunik lortu, nahiz eta aurrerapausoak egin ziren. Dena den, langile batzordeak eutsi zion hiru eguneko lanuztearen deialdiari. Gauzak horrela, Megatecheko arduradunek astearteko 00:30ean proposamen berri bidalizioten langileen ordezkari. Horrela, gaur 05:00etan berriro ekin diote negoziatzeari, zenbait korapilo askatu baitzuzten sindikatuek, proposamen berria oinarri hartuta.

Lantegia geldirik

Goizeko 05:30ean ez da inor sartu lanera Megatecheko lantegian eta negoziaketak aurrera egin du. Azkenean, UGTk eta LABek babestu dute aurreakordioa

eta Austriako zuzendaritzak ituna babestu du. Argi berdea eman bezain pronto, sindikatuek bertan behera utzi dute lanuztea eta beharginak 10:30ean itzuli dira lanera.

KPIa eta enplegu bermea

Langile batzordeko kide batek adierazi du lan hitzarmen berriarekin beharginen erosketa ahalmena bermatu dela %95ean. Hau da, soldatek eta plus garrantzitsuenek KPI-ko egunera-keta izango dute 2023, 2024 eta 2025ean. Hain zuzen, 2024an KPIaren berrikuspina egingo da eta ezberdintasuna ordainduko zaie langileei. 2025ean, aldiz, KPI + 0.5 jasoko dute. UGTk eta LABek enplegua bermatzeko klausula ere sinatu dute. Halaber, lanaldia 8 ordutan luzatuko da 2023an eta 2024an eta orain dagoen moduan geratuko da 2025ean.

ELA ez da egon ados aurreakordioarekin, bere ustez gorkada ez baita nahikoa soldaten aldetik.

Langileen bozketa

Dena den, gatazka guztiz indargabetzeko urrats garrantzitsuena falta da oraindik. Izan ere, langileek urriaren hasieran (guztiak oporretatik zuzten direnean) bozkatuko dute aurreakordioa babesten duten.



2022-23 MATRIKULAZIO EPEA IRAILETIK AURRERA ZABALIK

Ikaskin 5, Laudioko industrialdea (Laudio) Gardeako tren geltoki alboan

699 88 35 63

Aiara

Ekintza sorta oparoarekin ospatu dute Aiarako Emakumeen Gelaren V. urteurrena

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Goizeko hamaiketan batukada feministaren erritmoek hartu zuten herria. Kalejira egin zuten emakumeen gelako atetik udaletxera. Bertan egin zuten egunari hasiera emateko ekitaldia, gelari buruzko bideoa proiektatzearrekin batera.

Jarraian, Aiaraldeko emakumeen espaziora itzuli ziren bizilagunak, Laura Guerrero Lorenzoz argazkilari luiaondoarraren erakusketaren inauguraziora. Ondoren abiatu zituzten taillerak, eguerdira arte luzatu zirenak. Virginia Imazen umore ikuskizunarekin eta sare morearen ehuntzearekin amaitu zuten ospakizuna.

Laudio

Bi txakur pozoitu zituzten pasa den astean Gardean

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Pasa den astean norbaitek bi txakur pozoitu zituen Gardeako auzunean. Bere txakurra pozoitua izan duen jabeetako batek azaldu dio Aiaraldea Komunikabideari bere animaliak egun txar batzuk igaro dituela eta buru makur egon dela, baina ez duela artatzeko beharrik izan.

Auzokide horrek eta beste batek, ordea, adierazi diote hedabideari Gardeagotxin beste txakur bat intoxikatu zutela. Antza, jabeak ikusi zuten pertsona batek saltxitxa bat botatzen ziola maskotari eta berehala bertara-

tu arren, ezin izan zuen ekin animaliak haragi zati bat jatea.

Dirudienez, saltxitxak pozoia zuen eta txakurra ondoezik jarri zen. Egoeraren larritasuna ikusita, jabeak albaitariarengana eraman zuen, txakurraren osasuna arriskuan baitzegoen.

Hiru txakur hilik Gardean

Laudioko auzune horretan, tamalez, antzeko gertakariak salatu dituzte aurretik. Izan ere, 2020an hiru txakur hil ziren, estriknina zuen haragia jan eta gero. Aurten ere, txakurren jabeek alarma deia zabaldu zuten, haragi puxka susmagarriak topatu baitzituzten.

Artziniega

Kultura Etxea eta dorre hotela konponduko ditu Udalak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Eusko Jaurlaritzako Bepiztu programaren dirulaguntza eskuratu du Artziniegako Udalak, sare sozialetan zabaldu duenez. Kutlur eta Hizkuntza Sailak eman dio tokiko erakundeari babes ekonomikoa, eta Kultura Etxea eta 'Ortiz de Molillo eta Velascoren dorrea' hobetuko dituzte horrela. Hain zuzen, Kultur ondare izendatu zuten multzo

hori 1996. urtean. "Bi eraikinak Artziniegako Alde Zaharreko Gune Arkeologikoan daude", argitu du Udalak. Kultura Etxeak egun liburutegia, Eguneko Zentroa eta elkarten egoitzak barne hartzen ditu. "Gainera, aisi zein kultur ikastaroak ere egingen dira bertan". Obrak gauzatzeko 800.000€ jasoko ditu Udalak, eta 2022-2023 urteetan zehar egikaritu beharko dituzte lanak. Hala, dorretxea hotel gisa irekitzeko apustua jarri du mahai-

ganean berriro instituzioak, asmoa hori dela azpimarratuta. "Horretarako, Artziniegako Udalak 100.000 euro jasoko ditu aurten, eta 2023an 700.000€", argitu dute. Arabako Foru Aldundiak eta Udalak gauzatu dute proiektua elkarlanean. Udalak aurreratu duenez, arotermia bidezko klimatizazio sistema jarriko dute, eta estalguena ere atonduko dute. Ildo beretik, ur saneamendua eta iturgintza ere hobetuko dituzte.



2022/23 IKASTURTEA

	ORDUTEGIA	KLASEA	MAILA
	19:00-20:30	DANTZA PLAZA	-
ASTELEHENA	19:00-20:30	TANGO	ERTAINA
	20:30-21:30	TANGO	HASTAPENA
ASTEARTEA	19:00-20:30	SALSA	OINARRIZKOA
	20:30-22:00	SALSA	ERTAINA
ASTEAZKENA	18:30-20:00	BALLET	-
	20:00-21:30	DANTZA GARAIKIDEA	-
	18:45-20:15	ARETOKO DANTZA	ERTAINA II
OSTEGUNA	20:15-21:45	ARETOKO DANTZA	HASTAPENA
	20:45-21:45	FITFLAMC	-
OSTIRALA	19:00-21:00	BACHATA ETA KIZOMBA Ikastaroak hamabost egunez behin	
	18:30-20:00	ARETOKO DANTZA	ERTAINA

IZEN-EMATEAK

605 72 34 20 // baisalainfo@gmail.com
Izena emateko azken eguna: IRAILAK 30

*Ordutegiak alda daitezke

TARIFAK

- 225€ > IKASTARO 1 (urritik ekainera arte, ordainketak hiru hilabeteko)
- DESKONTUAK 2. ikastarotik aurrera

GAZTE-TARIFA:
27 urte baino gutxiagokoentzat klase guztiak erdi-prezian!

Gardea 25, LAUDIO · 605 72 34 20 @baisalalaudio

22/23 IKASTURTEA

DEITU
747 43 82 86
WWW.OXFORDLS.COM

3 URTEKO UMEAK DOAN

ERRESERBATU ZURE PLAZA ORAIN

OFFICIAL PREPARATION CENTRE

OXFORD LANGUAGE SCHOOL

OFFICIAL PREPARATION CENTRE

Virgen del Carmen 11 - Laudio | lodio@oxfordls.com | [@oxfordlaudio](https://www.instagram.com/oxfordlaudio)

erreportajea

Urduñako I. Jaialdi Multikulturala: hiria aniztasunetik batzeko topaketa



Ezkerretik eskumara eta goitik behera: Jose Luis, Isabel, Rosario, Rosi, Escarleth, Gaby, Edgar, Abderahman, Sebastian eta Mireia urduñarrak. Aiaraldea.eus

Hamaika herrialdetako ohiturak batu eta ezagutarazi dituzte, Urduñako Foru Plazan irailaren 10ean gauzatutako Jaialdi Multikulturalean. Etorकिनen eskubideen aldeko elkarte berri honen lehenengo ekintza izan da jaialdia.



Testua **Allende Solaun Boada**

Bi aste igaro dira Urduñako I. Jaialdi Multikulturala antolatatu zutenenik, baina ez dute atsedenerako tarte handirik hartu. Izan ere, ekintzak prestatzen jarraitzeko asmoa dute etorkinen aldeko elkarte honen sustatzaileek. “Lehen aldia izateko, arrakasta handia izan du eta espero dugu datorren urtean are hobea izatea. Dantzaldia, Koranaren irakurketa eta munduko jantzien erakustaldia antolatu ditugu, besteak beste”, azaldu du Abderahmanek, jatorri marokoarra duen auzoki-

deak. Alaitasunez deskribatu du berak gidatutako ekintza: “Txalo asko jaso genituen. Jende asko egon zen, alkatea ere bazegoen”. Ikuspegi berekoa da Escarleth, Nikaraguako bizilaguna: “Harrera ona izan dugu auzokideen aldetik. Mariatxien kontzertua izan genuen Jose Luis Saratxagaren eskutik, baita zozketa eta janari dastatzeak ere. Txupinazoa, gainera, gure erara egin genuen, autismoa duten pertsonengan pentsatuz”.

Erabateko inklusioa bermatzeko xedearekin egokitu zuten jaialdiko txupinazoa. Ohiko piroteknia erabili beharrean, irrintzi ba-

tek eman zion hasiera jaiari. “Agerikoa da piroteknia asko eragiten diela animaliei, baina gure hirian horrelako suziriei oso sentiberak diren pertsonak daude eta, batik bat, azken arrazoi horregatik erabaki dugu txupinazoa berezi hau egitea”, adierazi du Mireia Hernandezek.

Hiriari bizia emateko

Ekimen honen bultzatzaileak Peruko bi bizilagun dira, Isabel eta Edgar. Nikaragua eta Honduraseko bi neskekin kafe bat hartzen zeudela bururatuzitzaie jaialdia antolatzeko. Orduetik hamaika nazioetako herritarrak batu dira el-

“Oso aberasgarria izan da, bai elkarteko kideentzat, bai herriko jendearentzat”

kartera; Bolivia, Brasil, Txina, Kolonia, Irlanda, Honduras, El Salvador, Ekuador, Egipto, Guatemala, Maroko, Mexiko, Nikaragua, Nigeria, Paraguai, Peru, Uruguai eta Senegalekoak, besteak beste. “Gehienei rantxerak gustatzen zaizkiela nekenez, gurekin parte hartzea proposatu nion Jose Luisi eta, jarraian, beste bizilagunekin harremanetan jartzen hasi nintzen”, gogora ekarri du Isabelak.

Rosi Honduraseko bizilagunak azpimarratu bezala, “hiria gehiago animatzeko” abiatu dute ekimen hau, “urtean zehar jarduera gehiago egon daitezen”.

erreportajea

Elkar ezagutu eta aldarrikatu

Gehienek aurretik elkar ezagutzen bazuten ere, adiskidetasuna indartzeko eta indarrak batzeko elkargunea izan da I. Jaialdi Multikulturala. Uruguaitik etorritako Sebastiani, esaterako, “Latinoamerikako jende gehiago ezagutzeko, baina Saharako edota Marokoko ohiturak ezagutzeko ere” balio izan dio ekitaldiak. “Egia da gehienok bistaz elkar ezagutzen genuela, baina askorekin ez genuen inoiz kafe bat elkarrekin hartu edo arratsalde bat dantzatzen igaro. Oso aberasgarria izan da, bai elkarteko kideentzat, bai herriko jendearentzat. Mundua tortilla bat dela uste duen horietakoa naiz. Euskal Herriko stand bat ere izan dugu, bizi-kalitate hobea bilatzera datozen pertsonak garelako, baina non gauden ahaztu gabe, bere lurraldean hartu gaituen gizartea partaide egiteari utzi gabe”.

Izan ere, jaialdi honen an-

“Musikak mundua mugitzen du. Kulturak gurutzatzen direnean, hobeto ulertzen dugu elkar”

tolakuntzaren barruan, Urduñan jaiotako eta hezitako auzokideak ere aritu dira: “Laguntzen izan gara Jose Luis Saratxaga, Soledad Lezameta, Idoia Eletxalde eta laurok. Festa beste hainbat herritar hurbildu dira eta asko eskertzen dugu. Behin jaialdia igarota, haiekin gurutzatzean, baliteke baten batek atzerriko auzokideei agurra ukatzea; ekimen honen helburua, hain zuzen ere, pertsonen arteko mugak gainditzea da. Hemen bizi dira, eskubideak dituzte eta urduñarrak dira”, adierazi du Mireiak. Ildo beretik, musikaren garrantzia azpimarratu nahi izan du Jose Luisek: “Musikak mundua mugitzen du. Kulturak gurutzatzen direnean, hobeto ulertzen dugu elkar. Gastronomiaren kasuan, gauza bera gertatzen da; oso ezberdinak diren pertsonen sentimenduak batzen ditu”.

“Ahotsa dugu, oihu egin nahi dugu, existitzen garela eta hemen gaudela esan, baita gure

“Ahotsa dugu, oihu egin nahi dugu, existitzen garela eta hemen gaudela esan, baita gure ohiturak ditugula aldarrikatu ere”

ohiturak ditugula aldarrikatu ere. Une bakoitzean gauden lekura egokitu behar gara; noski, logikoa da. Nik bihotzez maite dut nire alabek euskara ikasi ahal izatea, are gehiago nik kitxua ikasteko aukera izan ez nuelako, desagerrarazi nahi zutelako. Hala ere, ezin dugu gure kultura ahaztu”, laburbildu du Isabelek.

Besoak zabalik

Astero biltzen da taldea, ostegunero Alondegian 18:00ak edo 18:30ak aldera, eta irekita dago parte hartu nahi duen ororentzat: “Mundu guztia da ongi etorria. Hemen gaude, guztion artean laguntzeko”.

Herritarrek festa luzatzeko gogoekin geratu zirela ikusita, lanean ari dira ekintza gehiago eskaintzeko. Etorkizunera begira, sorpresaz beteriko ekitaldiren bat antolatuko dute urtea amaitu baino lehen, eta urriko hirugarren astebururako itxita egotea espero dute.



**URDUÑAKO ELKARTE
MULTIKUTURALA**
EKIMENAREN ANTOLATZAILEAK

Topaketaren balorazioa

Irailaren 10ean, larunbata, Urduñan jaialdi multikulturala ospatu genuen, Bolivia, Nikaragua, Ekuador, Kolonbia, Paraguai, Uruguai, Venezuela, Honduras, Mexiko, Sahara, Aljeria, Maroko, Peru, Senegal, Guatemala eta Nigeriako lagunentzako partaidetzarekin.

Jaiaren helburua zen gure kulturak kalera ateratzea, herri bakoitzaren idiosinkrasia hobeto ezagutu eta ulertzea. Antolakuntza apur bat azkarra izan zen eta ezin izan genuen nahi adina prestatu. Hala ere, dantzek, zozketak -eskerrik asko babestu zutenei-, musikak eta, batez ere, sukaldaritza eskaintzak, guztiz doakoak, Urduñako jende asko erakarri zuten. Gastronomiak bereziki, Foru plazan ahalegin berezia egin baikenuen.

Gure balorazioa ezin positiboagoa da, parte-hartzea erabatekoa izan baitzen, ez genuena espero inondik inora. Izan ere, barkamena eskatu nahi diegu mariatxien kontzertura hurbildu ziren eta berberena luzatzea espero zuten pertsona ugari, baina udal Kultura Sailak eskatuta, jaia gaueko 11ak arte mugatu genuen, gure jarduerak Antiguako Jaiekin bat ez egiteko.

Hala eta guztiz ere, errepikatuzeko gogo dugu eta Gabonetan zerbait egin ahal izatea espero dugu, familia osoarentzako jardueraren bat. Bitartean, hutsetik abiatu garenez, beste talde bat bezala eratuko gara legez: Urduñako Elkarte Multikulturala. Momentuz, zorianak guztion artean egin dugun lan bikainagatik.

erreportajea



Azal aldaketa, baina ez azalekoa

Etxe arrosa izateari utzi dio Aretako 'etxe arrosak'. Azalez aldatzen ari dira eraikin ospetsua, fatxadako paretak grisez margotuta. Baina, azaletik harago, historia mamitsua du eraikinak.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Lehen eraikina

Baina 'etxe arrosaren' historia ez da azaleko kolorera mugatzen. Badu mamia. Pisu blokearen alboan ikusi daiteke oraindik aurretik zegoen eraikinaren oinarria. "Edifizio hori gaur egungoaren kokalekutik oso gertu eraiki zen 1968. urtean. sei solairu zituen, eta 18 etxebizitza".

Eraldatzen ari da Laudio eta Areta arteko paisaia. Bide zaharretatik paseatzen edo errepidetik autoz joanda ikusi daiteke aldaketa, Areta kaleko 4 eta 6. zenbakiak barnebiltzen dituen 10 solairuko eraikinaren paretik igarotzean.

Azken aldaketa, duela 19 urte

'Etxe arrosa' gisa ezagutzen da edificzio hori, baina jada ez da arrosa. Grisez margotzen ari dira fatxada, jada hainbat hila-betez luzatu den obraren bidez. "Iparraldeko aldea konpontzen ari dira orain", azaldu du Conchi Sesar Mella bizilagunak. "Ez dira margotzera mugatzen ari, balkoiak ere aldatzen ari baitira" gehitu du. Bere hitzetan, "duela 19 urte" margotu zen eraikina azkeneko aldiz, eta orduan hartu zuen orain arte izan duen kolore deigarria. "Etxea, berez, beti izan da arrosa, baina lehen zuen kolorea apalagoa zen. Duela 19 urte, margolariak kolorearen lagin bat erakutsi zioten aukeraketa egin zuen bizilagunari, baina pinturak aurreikusitakoa baino askoz tonu biziagoa hartu zuen paretan". Jendeak ez zuen gustuko izan. Gauzak hala, oraingo erreforma egiteko orduan, bizilagun guztiak zeuden ados gauza batean: ez zutela berriz arrosaz margotuko. "Arkitektoak hainbat aukera planteatu zituen eta gehiengoak egin zuen grisaren alde", Sesarrek azaldu duenez. "Hala ere, kolore aldaketak aldaketa, nik argi du eraikina beti ezagutuko dugula 'etxe arrosa' bezala. Ikur bat bilakatu da".

"Aretako etxe arrosak beti izan du kolore hori, baina duela 19 urte are deigarriagoa bilakatu zen"

Hala zaldu du Pablo Maestre Salas Argandoñak. Bera oso gaztea zen orduan, baina memoriaz iltzatuta du gertatutakoa. "Abuztuan sartu ginen bertan bizitzera, eta handik hilabete batzuetara erori zen eraikina, 1969ko maiatzaren 14an. Gogoratzen dut nire aitak nola jaitsi ninduen kalera pijaman, eta jendea oihuka".

Bere hitzetan, kasualitate hutsa izan zen gertaera hura tragedia ez bilakatzea. "Beste eraikin bat egiten ari ziren alboan, eta bertako langileak gure pisuaren sotoan aldatzen ziren. Goiz hartan bertan sartu zirenean sumatu zuten eraikinaren zutoinak arrakalatzeko ari zirela. Ate guztiak jotzeari ekin zioten, eta orduan ateratu ginen kalera. 6:30ak

erreportajea

aldera izango ziren". Ondorio argia plazaratu du Maestrek: "Langileek salbatu ziguten bizitza. Egun hori jai-eguna izango balitz tragedia hutsa izango litzateke".

Etxetik atera eta gutxira egin zuen huts estruktura osoak. "Gure gauza guztiak utzi genituen atzean. Nire gurasoak hondakinen artean bila eta bila aritu ziren gero astebete baino gehiago, beste hainbat lagunekin, etxearen eskriturak topatzeko, horiek gabe ezin zutelako ezer erreklamatu. Altzarien fakturak ere bilatu behar izan zituzten". Ezinezko lana zirudien arren, azkenean lortu zuten dokumentu horiek berreskuratzea. Gaur egun, oroigarri moduan ditu gordeta Maestrek.

Gero etorri zen epaiketa. "Bertan ondorioztatu zen etxeak behar baino burdinezko hezur-dura gutxiago zuela. Kostuak aurrezten saiatu ziren eraikitzerakoan".

Eraikin berria, "sendoegia"

Eraikin horrekin gertatutakoak eragin nabarmena izan zuen 'etxe arrosaren' egiturari. Handik zazpi urtera eraiki zuten pisu bloke berria. "Eraikuntza enpresakoek beldur handia zeukaten aurreko edifizioarekin gertatutakoa ikusi ostean", azaldu du Sesarrek. "Gainera, harrobia alboan zegoen, eta ez tandem bibrazioak ere nabarmenak ziren".

Horregatik, "plaka prefabrikatuak" baliatu zituzten eraikina osatzeko. Estruktura sendoa atondu zuten horrela, sendoegia agian. "Nire etxeko zenbait paretetan ezin dut iltzerik jarri, hormigo armatuzkoak direlako.



Pablo Maestre Salas

Eraikin zaharreko bizilaguna

"Langileek salbatu gintuzten aurreko eraikina erori zenean"



Conchi Sesar Mella

Etxe arrosako bizilaguna

"Bizilagun guztiak geunden ados gauza batean: ez genuela berriz arrosaz margotuko"

Behar baino gehiago indartu zuten, eroriko zenaren beldurragatik".

Berlojatzenen borroka zikloa

Erortzeko ez, baina eraitsia izateko arriskua bai izan du 'etxe arrosak' gainean, hainbat urtez, gainera. Alvaro Barriosek ondo oroitzen du nola hasi zen dena: "2009aren amaieran, garai hartako udal arkitektoak aipatu zuen etxe arrosa agian bota behar zela, ez zituelako ibaiaren alboan egoteagatik uholde-arrisku irizpideak betetzen". Ez zen kasu isolatu bat. Antzeko egoera batean zeuden Doctor Fleming eta Jose Arrue kaleetako etxeak ere.

Gaiak komunikabideetara egin zuen salto, eta "kalte handia" eragin zien bizilagunei. "Pisuek egun batetik bestera galdu zuten balioa", oroitu du Sesarrek. "Jende batek hitzartuta zeukan salementa, eta aukera hori galdu zuten atera zen albisteagatik".

Gaiak kezkatu, udalera jo zuen Barriosek: "Udal arkitektoarekin eta alkatearekin hitz egin nuen bertan eta, ondoren, kaltetutako eraikin guztietako txirrinak jo nituen, bilera bat deitzeke".

Horrela jaio zen Berlojatzen plataforma, Laudion azken hamarkadan egondako auzo-mugimendu indartsuenetakoa bat. "400 bazkide baino gehiago izatera iritsi ginen. Abokatu bat kontratatu genuen eta uholdeen arriskuen gaineko kalkulu propioak egin genituen, alternatibak zeudela frogatu ahal izateko".

Izan ere, Barriosen hitzetan, garai hartan topatu zuten "inmo-



Alvaro Barrios Medina

Berlojatzen plataforma

"Enpresa honek gauza bat egin du oso ondo. Irakatsi digu zer den langile klasekoa izatea: eurentzat zenbaki hutsak gara"

bilismoak" ez zuen inolako zentzurik: "Plan orokorraren zirriborroa aurkeztu zenean uholde arriskuen gaineko irizpide berriak jarri ziren indarrean. Gaztelan oso erraz aplikatu daitezke irizpide horiek, denak lautadak direlako. Baina hemen haranetan bizi gara, eta ibai ugari daude. Irizpide hori EAEn aplikatuko balitz, Ugao osoa edota Bilboko Alde Zaharra desagerrarazi beharko lirateke. Asmo ona zuen URAK: 1983ko uholdeak berriz ez errepikatzea. Baina ondorioak ez ziren onargarriak".

Berlojatzenen egin zuten topo Barriosek eta Sesarrek. "Oso garai polita" izan zela diote biek. "Bizilagunen batasuna oso polita izan zen. Gurasoak, haurrak... bizilagun guztiak batera aritu ginen". Mobilizazioak, bilerak, elkarretaratzeak... ekimen andana egin zuten, eta hauteskundeetara aurkeztea ere pentsatu zuten (horrela sortu zen gerora Omnia alderdia izango zenaren hazia, baina hori beste istorio mardulago bat da).



elkarrizketa

“Langileon batasun eta ahaleginari esker lortu dugu kaleratzeak kentzea”



SUPERBERRIAKEKO LANGILEEK IRAILAREN 16AN GREBA MUGAGABEA ABIATU ZUTEN, ENPRESAK SALTOKI GUZTIAK ITXI ETA 90 LAGUN INGURU KALEAN UZTEKO ASMOAREN AURKA BORROKATZEKO



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Greba mugagabeko laugarren eguna bukatzeaz zela -irailak 20- jakinarazi du Superberriak saltoki kateko zuzendaritzak Enplegua Erregulatzeko Espedientea erretiratuko duela. Langileek irailaren 16an abiatu zuten 70 kaleratze baino gehiagoren aurkako greba mugagabea.

Lau egunetako protesta eta mobilizazioek fruitua eman dute. Beharginek, Superberriakeko kaleratzeak ez ezik, enpresako sozietate guztietako kaleratzeak ekiditea lortu dute. Izan ere 90 lagunengatik zegoen jokoan.

Adostutakoaren arabera, Uvesco konpainiak subrogatuko ditu Superberriakeko langile guztiak. Printzipioz, bihar grebak iraungo du, ezin izan dutelako abisua bidali bertan behera uzteko. Espedientea indargabetuta, negozioa mahaia osatuko dute Superberriak supermerkatuetako zuzendaritzak, langileen ordezkariak eta Uvesco konpainiak. Gaur bete dute beharginek greba mugagabearen laugarren eguna.

Irialaren 16an (grebaren hiurgarren egunean) Ana Martinez, Ludi Temiño, Blanqui Zubiaur, Angela Ginés, Eneritz Castro, Ana Huidobro, Gema del Prado, Soraya Yuste, Mari Carmen Otaola eta Sofia Treceño Superberriak supermerkatu kateko langileekin elkartu zen Aiaraldea Komunikabidea, protesten nondik norakoa ezagutzeko.

Nolako izan da greba mugagabearen jarraipena Superberriakeko supermerkatuetan?

Denda guztiak daude itxita, eta grebaren jarraipena erabatekoa izan da. Ez da inor lanera etorri. Egunek aurrera egin ahala gero eta indartsuago ikusi dugu gure burua. Lehenengo eguna gogorragoa egin zitzaigun, penaz eta tristuraz bizi izan genuen egun hura, baina grebak aurrera egin ahala gure aldartea ere aldatzen joan da.

Zergatik erabaki zenuten greba mugagabera jotzea?

Abuztuaren 30ean supermerkatuko kudeatzaileekin elkartu ginen eta Enplegua Erregulatzeko Espediente bat jarri ziguten mahai gainean, kaleratze kolektibo bat; 70 langile baino gehiago kale-gorrian utziz, eta, ondorioz, saltoki guztiak itxiz. Ez ziguten inolako alternatibarik eskaini, ez zegoen negoziariorako tarterik. Horren aurrean

aukera bakarra geneukan beharginok; planto egitea eta greba mugagabera jotzea.

Zaila izan zen erabaki hori hartzea?

Ez zegoen beste biderik. Greba da presioa egin eta kaleratzeak kentzeko dugun tresnarik eraginkorrena. Bi orduko lanuzteak egin izan bagenitu gutaz barre egingo lukete kudeatzaileek. Hau ez da mehatxu bat izan, greban mantendu gara kaleratzeak mahaigainetik kendu arte.

Nola justifikatu du Superberriak kateko gerentziak 70 langileen kaleratzea?

Arrazoi ekonomikoak direla esan dute, eta beharbada legalki hori esateko aukera dute, baina guk argi daukagu hori gezurra dela. Zifrak hor daude, galerak ditugula diote baina guk badakigu hori ez dela horrela. Kudeatzaileek Basele izeneko enpresa bat daukate, izugarriko irabaziak dituena. Bertara ari dira mugitzen guk saltokietan sortutako irabaziak, gerora galerak justifikatzeko.

Superberriakek dirutza ematen dio Baseleri, zuzendaritza berdina kudeatutako beste sozietate; supermerkatuen alokairuak edo Baseleko hamar langileen soldata altuak ordaintzeko.

Guztiok ulertzeko, nola dago antolatuta Superberriak eta gainerako enpresen arteko konglomeratua? Nola dago antolatuta kudeaketa?

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu guk ez dugula zerikusirik BM Supermerkatuekin, Superberriak izaten jarraitzen dugu guk. Superberriak BM kateko frankiziatu bat baino ez da; hau da, BM-k irudi korporatiboa baino ez dio ematen gure saltoki kateari.

Superberriakeko zuzendaritzak aurreko zuzendaritza berdina izaten jarraitzen du: Basi eta Elena dira kudeatzaileak, eta egoera honetara eraman gaituztenak.

Negozia hiru sozietatetan dute zatituta: Laudioko, Amurrioko, Ugaoko eta Bilboko Alde Zaharreko saltokiek osatzen duten Superberriak katea, Roxima Barakaldoko saltokia eta Basele. Basele higiezinaren kudeaketaz arduratzen da nagusiki, enpresako zuzendaritza litzateke. Bost saltokien lokaletatik hiru Baselerenak dira jabetzan, baina Superberriakek hiru lokal horien alokairua ordaintzen dio

elkarrizketa

Baseleri, negozioak berdinak diren arren. Kapitalen desbideratzea da hori. Supermerkatuetan sortzen diren mozkin guztiak bertara mugitzen dituzte merkataritza-sozietatea hustuz. Roxima egoera berdinean dago. Supermerkatuak ez du inoiz galerarik izan. Irabazi gutxiago izateak ez du esan nahi galerak daudenik.

Superberriak galerak aurkeztu zituen 2020an, pandemia urtean.

Hori barregarria izan zen. Supermerkatu guztiak izan zituzten irabaziak 2020an, guk barne. Ez dute paper bakar bat ere aurkeztu ustezko galera horiek justifikatzeko. Pentsa lana zenbakekoa zen, bost banatzaile kontratatu zituztela pandemia bete-betean etxek etxeko banaketak egiteko, normalean banatzaile bakarra egoten denean. Galerak izan genituela esatea

“Ez ziguten inolako alternatibarik eskaini, ez zegoen negoziatorako tarterik. Horren aurrean aukera bakarra geneukan beharginok; planto egitea eta greba mugagabera jotzea”

barregarria da. Izugarritzko lan-zama genuen, mundu guztia zetorren supermerkatuetara erostera, ezin baitzen beste inora joan.

Zerk suposatu zuen zuentzat pandemia garaian egindako lanak?

Egundoko lan-zama izan genuen etxealdiak eta neurri murriztaileak iraun bitarteko hilabete horietan, unean ez ginen egiten ari ginena asimilatzeko gai. Mundu guztiak jo zuen supermerkatuara. Ordu asko sartu genituen lanean, demasa izan zen. Askotan beharrezko segurtasun materialik gabe aurkitu ginen.

Enpresak plus txiki bat ordaindu zigun gure lanaren aitortza gisa, orain aurpegiatu egin nahi digu hori kobratu izana. Ezinbestekoak ginen orduan, eta orain kale gorrian utzi nahi gaituzte.

“Negozioa hiru sozietatetan dute banatuta, eta kapitalen desbideratzea egiten ari dira, Superberriak saltokietan galerak justifikatzeko, baina gezurra da”

Uste duzue Superberriak kudeatzaileek alde aurretik pentsatuta zutela negozio guztiak ixtea?

Bai, erabat. 2019an gure lan eskubideen alde mobilizatzen hasi ginenean ez zion inolako graziarik egin enpresari, nola-baitek mendeku saiakera izan da hau. Zuzendaritzaren alde-bakarreko erabakia izan zen gu kaleratzea. Batzuek diote guk soldata igoera eskatu genuela, baina hori ez da egia. Uztailaren 27an, gure lan baldintzen aldeko elkarretaratze baten ostean gurekin elkartu zen zuzendaritza eta esan ziguten iraila erdialdean aztertuko genuela dokumentazioa beste bilera batean, abuztua hilabete baliogabea zelako. Aurpegira bota ziguten gezurra. Abuztuaren 31n bilera urgente bat deitu zuten, eta beste ezertarako tarterik utzi gabe aurkeztu ziguten kaleratze espedientea. Puntu horretara iritsi



elkarrizketa

“Azpimarratu behar dugu BMk ez duela inolako zerikusirik izan lan gatazka honetan, Superberriak kateko zuzendaritzak du erantzukizun guztia. Hau frankizia bat da, BM irudi korporatiboa baino ez da”

aurretik beste hamaika alternatiba zituzten kaleratzeak saihesteko, bat bera ere ez zuten kontentplatu.

2019an ekin zenioten Superberriak supermerkatuetako langileek antolatzeari eta zuen eskubideen alde mobilizatzeari. Nola oroitzen dituzue egun horiek?

Aurrerapauso handia eman genuen 2019ko hartan; urte askoren ostean lehendabizikoz sindikatu ginen eta gure lan-eskubideen alde mobilizatzeari ekin genion. Gogorra izan zen hasieran, zuzendaritzak ez gintuen aintzat hartzen. Gu gure lan egutegia errespetatzea eskatzen genuen soilik, kudeatzaileek, ordea, enpresa galbidera eramango genuela esaten zigun. Ez zuen inolako zentzurik, supermerkatuak oso ondo zihoazen, guk hori argi ikusten genuen; eta gure eskubideen alde ordu beteko lanuzteak egiteagatik porrotera eraman behar genuen enpresa? Orduetik mespretxuz tratatu gaitu zuzendaritzak, ez zitzaion batere gustatu gu zarata egiten hastea. Lau urte eman ditugu gure eskubideen alde borrokan, lan hitzarmenean jasotakoa betetzea eskatuz, ez gehiago ez gutxiago. Zuzendaritzak, ordea, ez dizkigu gauzak batere erraztu.

BM markara aldaketa ere testuinguru horretan egin zen, ezta?



Superberriakeko langileek azpimarratu dute saltoki-kateko zuzendaritza dela egungo egoeraren erantzule bakarra / Aitor Burgoa, Aiaraldea.eus

BMra aldaketa ere guri ezer galdetu gabe egin zuten. Saiatu ziren gu konbentzitzen, enpresaren bideragarritasunerako aukera onena zela esanez. Guk ez geneukan batere argi, baina esan ziguten bi urte itxaronda bueltatuko ginela aldaketaren aurreko irabazi kopuruetara. Azkenean, zuzendaritza izan da horren zain egon gabe aldaketa egin eta 15 hilabetera saltokiak ixtea erabaki zuena, guk, nolabait, gorakada bat ikusten genuen bitartean. Ulergaitza izan da hauen jarrera.

Nola baloratzen duzue herri-tarren eta bezeroengandik

“Feminizatua den eta ohikoan langile-gatazketara ohitua ez dagoen sektore batean 600 lagun manifestazio batean elkartzea ikaragarria da”

jasotako babesa greba egun hauetan?

Ikaragarria izan da. Oso pozik gaude, oso babestuta sentitu gara. Itxi aurretik bezero asko etorri ziren gugana animoak ematera. Apalategiak hutsik egon arren gurera etortzen ziren babesa eskaintzen. Denda guztietako kideek berdina nabarmendu dute. Ohiko bezero askok negarrez bukatzen zuten gure egoeraren aurrean, eta azkenean gu ginen horiek kontsolatu behar genituenak. Eskerrak ematea besterik ez dugu, bereziki eguneroko bezero fidel izan diren horiei. Askok urteak daramatzagu supermerkatu hauetan lanean,

eta bezeroekin sortzen den harremana oso oso estua da, gertukoa. Eta ez hori bakarrik, itxi nahi izan dituzten saltoki hauek erreferentziatzko saltokiak izan dira bezero asko eta askorentzat. Ugaon, esaterako, ez dago beste supermerkatuik herrigunean, ez ona, ez txarra. Lan gatazka honetan kaltetuak izan garen modu berean (lana galtzearen egun gaerlako), eguneroko bezeroak ere kaltetuak aterako ziren; ohiko saltokia galduko zutelako. Beraiei esker gara gu. Hemendik pasa diren familiekin batera hazi gara gu ere urte hauetan guztietan zehar. Mobilizazioek egundoko eran-

elkarrizketa



tzuna izan zuten. Bilboko Alde Zaharrean zein Amurrión egin-dako elkarretaratzeek jende asko elkartu zuten.

Baina guretzat bereziki hunkigarria izan zen Laudioko manifestazioa. Kaltetutako 40 bat langile izango gara eskualdean orotara; gurea bezalako sektore feminizatu eta ohikoan langile-gatazketara ohitua ez dagoen sektore batean 600 lagun manifestazio batean elkartzea ikaragarria da. Tubacexekin gertatu bezala; herriaren babes ezinbestekoa dugu guk ere. Beldur hori genuen hasieran, gurekin ere babes hori errepikatuko ote zen galdetzen genion gure burua-

ri. Laudioko manifestazioak aise erakutsi zigun hori, oilo-ipurdiarekin igaro genuen mobilizazio guztia.

SOS Aiaraldea plataformatik egiten ari den lana eskertu behar dugu ere. Izugarritzko lana ari dira egiten eskualdeko enplegu suntsiketaren aurrean sektore oso ezberdinetako langileak batu eta elkar-harremanetan jartzeko: industria, zerbitzuak...

Oso inportantea da sektore feminizatuetakoa langileak ere antolatzea eta borrokara batzea. Gure lana ezinbesteko bezain ikusezina da. Bada garaia gure eskubideen defentsan ahotsa altxatzeko.



argazki erreportajea

Antzinako Azoka Artziniegara itzuli zen etenaldi luzearen ondoren; bi urtez ospatu gabe egon ostean, antolatzaileek ahalegina egin zuten herritarren parte hartzea berreskuratzeko, egitarau oparo baten bitartez.

Artziniegako Antzinako Azoka: Egun bakarreko bidaiaria Erdi Arora



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**


Antzinako azoka berreskuratu dute Artziniegan. Iragan irailaren 17an goizetik gauerako programazioa atondu zuten horretarako, eta mendeetan atzera murgildu ziren ehunka lagun giro ederrean. 10:55ean ireki zuten hiribildua Alañaren adar hotsek, eta ondoren irakurri zuten pregoia, bufoi, gaitajole, pikaro, klero eta gorteko jendea lagun.

Hala, herritar ugari ateratzen armairuetatik denbora luzez gordetako jantziak.

Goizean zehar Builaka batukadaren kale animazioa, ardien ile mozketak erakustaldiak, Bleibet abesbatzaren emanaldia eta marmelada gozoren dastaketa egon ziren, besteak beste.


Arratsaldean, aldiz, ehiza hegaztien hegaldia egin zuten, beste ekintza askoren artean. Alabaina, egun osoan zehar jarduera asko ikusteko aukera egon zen, hala

nola igeltsu freskoaren margoketa, Artea Etnografiaren sute-gira bisita gidatuak, txakolina egiteko erakustaldia... Funtsean, artisauek euren lanbideak irakatsi eta euren sorkuntza piezak erakutsi zituzten. Horien artean, Alañak 50 adarrekin hornitu zuen postua, eta horietako bakoitzean 'Aita gurea' idatzi zuen munduko hizkuntza ezberdinetan. Hiru kaleren artean, beraz, denbora kutxa bilakatu zen Artziniega igandean.



argazki erreportajea







hitz
zentroa

Karmen katea 39,
01400 LAUDIO
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22
hitz.zentro@gmail.com

- Haurren garapenerako zentroa eta arreta goiztiarra (0-6 urte)
- Logopedia
- Pedagogian laguntza terapia
- Psikologia
- Fisioterapia pediatrikoa
- Gurasoentzako orientazioa

PROFESIONAL EUSKALDUNAK ZURE ZERBITZURA

AFAK baimendutako **HAURREN GARAPENERAKO** eta **ARRETA GOIZTIARRA** lantzeko zentroa



@hitz.zentroa



Asteburu bete ekintzekin ospatuko dute *Laudioko Euskal Jaia*

‘Euskaraz bizi’ lemapean euskararen jaia egingo dute Laudion irailaren 23tik 25era. Babilarrinak, Kirikiñok, Laudioiko ikastetxeek eta Udalak prestatu dute beste urte batez Euskararen jaiko egitaraua, elkarlanean.

Ostiralean hasiko dute ekintza sorta, ‘Gune ibiltaria’ erakusketarekin. Arratsalde osoan egingo da Topagunearen eta Laudioko Udalen erakusketak herriko plazan, 17:00etatik 20:00etara, hain zuzen. Euskaraldiari lotutako tailerrek emango diote segida barrikuko programazioari, 18:00etatik aurrera talo eta txapa tai-

lerrak zein musika eskaintzak hartuko baitute Herriko plaza. Ordu erdi beranduago, Laudio-ko euskararen kale neurketaren emaitzak aurkeztuko ditu Udalak, Kultur Etxean. 20:30ean, aldiz, Ugarte Otxotearen kantujiraren doinu-pean ariko dira bizilagunak.

Larunbatean, ‘Laudion euskaraz’ filmalaburren rallya antolatuko du Kirikiñok Aldai plazan, eta 13:00etan egingo dute sari banaketa. Arratsaldean, ordea, dantza plaza egingo dute Herriko plazan, Erdizka laueta taldearen eskutik.

Igandean amaituko da ospakizun zikloa, Erdialdera Ugarteko plazatik abiatuko den mendialdi ibilaldiarekin. 9:30ean izango da irteera hitzordua, eta 12:00etan ‘Laudio euskalduna’ argazkia eta mokadua egingo dituzte aipatutako eremuan. Antolatzaileek adierazi dutenez, egingo dute aurkezpena Kultur Etxea

Aurten ez da herri bazkaririk egingo. Urrezko makilaren ekitaldia, aldiz, abenduaren 3an egingo dute, Euskararen Nazioarteko Eguna-ren testuinguruan.

MUSIKA

09.23 Ostirala
20:30 LAUDIO
UGARTE OTXOTEA
Euskararen Jaia
Herriko Plaza

09.24 Larumbata
19:30 ARTZINIEGA
TRIO NACEDO
Mendieta Kultura Elkarateak
antolatutako VI. Kontzertu
Zikloa
Arteko Gure Amaren
Santutegia

10.01 Larumbata
21:00 URDUÑA
KOP ETA LAKET
ERROMERIA
Aiaraldeko Independentzia
Eguna
Foru Plaza

10.02 Igandea
12:30 OROZKO
IGOR ARZUAGA ETA
LAGUNAK
Baserriak zuzenean
Albitzu

HITZALDIAK ETA TAILERRAK

09.22 Osteguna
18:30 URDUÑA
DEATH CAFFE,
Heriotza bezalako gai
natural batez lasai hitz
egiteko topaketa
Alondegia

09.22 Osteguna
19:00 LAUDIO
“KRISI EKOLOGIKOAREN
AURREAN ZER?”
Hitzaldia eta Ekotopaketen
aurkezpena
Kultur Etxea

09.23 Ostirala
18:00 ARRANKUDIAGA
GENERO INDARKERIARI
AURRE EGITEKO
KIROL ETA KULTURA
ELKARTEENTZAKO
TAILERRA
Eskola

09.23 Ostirala
18:30 LAUDIO
EUSKARAREN KALE
ERABILERI BURUZKO
IKERKETA
Euskararen Jaia
Kultur Etxea

09.28 Asteazkena
17:00 URDUÑA
FORMA GEOMETRIKOEI
BURUZKO TAILERRA
Herriko Plaza

09.25 Igandea
11:30 LAUDIO
URDUÑA HIRIA HERRI
KROSA
Foru Plaza

10.01 Larumbata
09:30 URDUÑA
GOIZALE ATERPEAREN JAIA
Lendoñogaiti

BESTELAKO JARDUERAK

09.21 Asteazkena
11:00 LAUDIO
ARABAKO METALA GREBAN;
MANIFESTAZIOA
Herriko Plaza

09.22 Osteguna
18:30 LAUDIO
BOR BOR FEMINISMO
FAKTORIAREN ASANBLADA
IREKIA
Faktoria

09.23 Ostirala
19:30 LAUDIO
TXOKOLATE JANA
Euskararen Jaia
Herriko Plaza

09.24 Larumbata
12:00 LAUDIO
LAUDION EUSKARAZ FILM
LABURREN LEHIAKETA
Euskararen Jaia
Aldai Plaza

09.24 Larumbata
19:30 LAUDIO
ERDIZKA LAUETAN DANTZA
PLAZA
Euskararen Jaia
Aldai Plaza

09.27 Asteartea
09:30 ARTZINIEGA
TXANGOIA DONOSTIRARA
60 urtetik gorako
herriarrentzat
Herriko atea

10.01 Larumbata
10:00 LAUDIO
GERRA ZIBILAREN
BERREGITE HISTORIKOA
Ermualde

10.01 Larumbata
11:00 AMURRIO
AISIA ESKAUT TALDEAREN
URTEURRENA
Amurrioko parkea

10.01 Larumbata
13:00 URDUÑA
AIARALDEKO
INDEPENDENTZIA EGUNA
Ekitaldi politikoa
Foru Plaza

Minbiziaren aurkako ibilaldia igandean



Minbiziaren aurkako martxaren edizio berri bat egingo dute igandean -irailak 25- Amurrion, Aurreraka elkarteak antolatuta. Izen ematea Internet bidez edota Kultur Etxean bertan egin ahalko da, irailaren 23ra arte.

Inskripzioak 10 euroko kostua izango du eta dirua minbiziaren aurkako ikerketara bideratuko dute.

Ekotopakeak aurkeztu

eta kirisi ekologikoaren inguruko hitzaldia eskainiko dute Laudion



'Krisi ekologikoa eta klase borroka' hitzaldia eskainiko dute Sukar Herria kolektiboko kideek Kultur Etxean, 19:00etan.

Ekotopaketak egingo dituzte irailaren 30etik urriaren 2ra Portugaleten. "Krisi ekosozialaren" larritasuna mahai gainean jarri eta horri aurre egiteko estrategiak garatzen hastea izango da jardunaldien xede nagusia. Irailaren 8an egin zuten topaketako

egitarauaren aurkezpena Bilboko Kafe Antzokian, baina beste hainbat tokitara ere igaroko dira antolatzaileak, ekimena jendarteratzeko.

Ostegun honetan, Aiaraldean egingo dute aurkezpena, 19:00etan Laudionko Kultur Etxean. Sukar Herria kolektiboko kideak egingo dira bertan hitzaldia eskaintzen. Hain zuzen, 'krisi ekologikoa eta klase borroka' izango dute hizpide.

Independentzia Eguna ospatuko dute urriaren 1ean Urduñan



Sortuk Independentzia Eguna antolatu du Aiaraldean. Urriaren 1ean izango da jaia eta Urduñako Foru plazan egingo dute. Eguna mendiibilaldiarekin abiatuko dute eta 13:00etan ekitaldi politikoaren txanda helduko da. Jarraian, trikipotea egingo dute. 15:00etan herri bazkaria hasiko da eta jarraian Kateak Ate taldeak joko du, bazkalostean. Sarrerak Urduñako Mugalde tabernan, Laudioko Bazter tabernan eta Amurrioko Txokogorri eskuratu daitezke. 21:00etan izango da eguneko azken ekintza, kontzertuak, hain zuzen. KOP taldea igoko da oholtzara lehenik eta behin eta gero Laket erromeria taldea.



Urduña Hiria krosa irailaren 25ean

Urduñako Arando korrikalari taldeak irailaren 25ean egingo du Urduña Hiria Herri Krosa. 10 kilometroko ibilbidea bete beharko dute parte hartzaileek. Herri krosan lehiatzeko 2006an edo lehenago jaio izan behar da. Berez, beste hiru kategoria ere egingo dira: Mini-txikiak (2014an edo geroago jaioak), Txikiak (2007 eta 2013 urteen artean jaioak) eta parolimpikoak.

Unai Gonzalez Martinekkin

KIROL
JARDUERAK

09.25 Igandea
09:30 LAUDIO
MENDI IBILALDIA
ERMUALDERA
Euskararen Jaia
Ugarteko Plaza

09.25 Igandea
10:30 AMURRIO
MINBIZIAREN KONTRAKO
IBILIADIA
Juan Urrutia Plaza

INFO +
aiaraldea.eus

10.01 Larumbata
16:30 ARTZINIIEGA
ARTZINIEGAKO MUS
TXAPELKETA
Felipe Arrazuria memoriale
Kirodegia

10.02 Igandea
09:15 URDUÑA
KILOMETROAK JAIALDIRA
JOATEKO AUTOBUSA
Suhiltzaileak

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!



Jaso Whatsappean
eguneko edukiak,
688 848 152 zenbakira

AIARALDEA GAUR
mezua bidalita!



Batu Telegramera
t.me/aiaraldea
esteka bidez!



INFO+ www.aiaraldea.eus



kultura

“Emakumeon ditugun desio eta kezka irudikatzen saiatu naiz”



LAURA GUERRERO LORENZOK (Laudio, 1973) HAMARKADA BAT DARAMA ARGAZKIALRITZAREN MUNDUAN MURGILDUTA, BAINA IGANDEAN INAUGURATU ZUEN BERE BAKARKAKO LEHEN ERAKUSKETA, AIARAKO EMAKUMEEN GELAN. COLLAGE TEKNIKA BALIATU DU EMAKUMEEN SENTIMENDU, BEHARRIZAN ETA ALDARRIAK ISLATZEKO.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Urte ugari daramatzazu argazkilaritzaren munduan sartuta, baina hau da zure bakarkako lehen lana.

Pandemia garaian hasi nintzen. Argazkilaritzan aritzen naiz, baina konfinamenduan ezin ginen atera. Fotomuntaiak egitea ere oso gogoko dut. Bi aldiz irabazi dut Aiarako jaietako kartel lehiaketa.

Bestelako praktika batzuk bilatzen nabilen Instagramen, collage digitalarekin topo egin nuenean. Baditu ezberdintasunak fotomuntaiarekiko. Collagean ez du horrenbeste axola erabiltzen diren irudiek jatorri ezberdina dutela sumatzeak. Irudi serie bat osatu nuen, botanikarekin erlazioatutakoa, eta gustatu egin zitzaidan. Landareen irudi zaharrak, vintagegoak, baliatzen ditut. Horrelako elementuak emakumeok irudiekin nahasten hasi nintzen, emakumea naizelako.

Modu horretan, hainbat ideia batzeari ekin nion: emakumeen eta landareen irudiak uztartzen hasi nintzen, baina ukitu pertsonalago bat gehituz, zer den emakumeen pentsatzen duguna, zer den buruan duguna (gure desioak, kezka...). Gauzak hala, sentimendu eta behar horiek islatzen saiatu naiz irudietan: osasuna, ongizate fisikoa, buruan ditugun labirintoak, buru-osasuna, heriotza, maitasuna, pasioa... munduko txoko ezberdinetako emakumeak irudikatu ditut, guztiok kezka berdina ditugula islatzeko. Horrek batzen gaitu, gure egoera soziala, adina edota jatorria edozein delarik ere.

Miren Urrestiri (Aiarako berdintasun teknikaria) planteatu nion erakusketa atontzea, Martxoaren 8aren testuinguruan. Atzeratu behar izan genuen, eta orduan proposatu zidan Aiarako Emakumeen Gelaren V. urteurrena baliatzea erakusketa inauguratzeko. Uste dut polita geratu dela. Urte amaierara arte egongo da ikusgai, abenduaren 31 arte. Bisitak antolatzen saiatuko gara, gela ireki eta jendeak ikusteko aukera izan dezan.

Nolako izan zen sorkuntza prozesua?

Irudi batekin hasi nintzen, landareekin uztartzeko, eta funtzionatu zezakeela ikusi nuen. Koloreak eta atzeko irudiak moldatzen hasi nintzen gero. Formatu zehatz bat hautatu nuen serie osoarentzat, irudiak guztiak konektatuak daudela irudikatzen. Erretratu klasikoaren itxura hartu dute, baina bakoi-tza bere nortasun propioarekin. Hau da emaitza, espero dut jendeak gustuko izatea.

Erakusketa hau proiektu gehiagoren abiapuntua izan daiteke?

Izan liteke. Nirea zaletasuna da, argazkilaritza zaletasun moduan bizi baitut. Ez du bestelako interesezik, gozatzetik harago. Baina atea beti dut irekita, eta elkarlanerako aukeraren bat sortzen bada antzeko interesak dituen beste pertsonaren batekin, ongi etorria izango da.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Ez. Saiatuko gara erakusketa beste tokiren batera eramaten jende gehiagok ikusi dezan, baina momentuz ez dut egitasmo gehiagorik esku artean.

Nola hasi zinen argazkilaritzaren munduan?

Laudio eta Amurrioko helduen ikastetxeetan hasi nintzen, duela urte asko. Nire alabei argazkiak egiteko ohitura neukan, baina ez zitzaizkidan ondo ateratzen. Photoshop erabiltzen hasi nintzen lehenbizi, eta gero egin nuen salto argazki kameraren erabilerara.

Zer nolako bilakaera izan duzu urte horietan guztietan?

Ez naiz argazkilaritza mota zehatz batean zentratu. Gai eta teknika guztiak probatzen ditut, ditudan gogo eta interesen arabera. Horregatik jarraitzen dut zaletua izaten, urte asko daramatzadan arren, estilo ezberdinak probatzen ditudalako. Kaleko argazkilaritza, adibidez, hirietara noanean egiten dut. Begirada heztea da garrantzitsua, ikusten ikastea. Horretan nabil, etengabeko ikaspen prozesua da hau (barreak).

Baina zure lehen erakusketan collagea erabili duzu. Nola hasi zinen teknika hori erabiltzen?

Argazkilaritza ikastean irudiak editatzeko programak erabiltzen ikasten duzu, eta horrek aukera ematen dizu zure irudiekin edo beste batzuekin jolasteko. Erakusketan erabili ditudanak, adibidez, lizentzia libreko irudi batzuetatik eskuratu ditut. Irudi asko daude eskura, esperimintatzeko eta dituzten aukerak aztertzeko.

Collageak aukera ematen dizu plazaratzeko irudi batean islatzeko zailak diren zenbait ideia. Argazkilaritza batzuek muntaiak ikusgarriak baliatzen dituzte, baina horrek aurrekontu handia eskatzen du. Kalitate maila horietara iritsi gabe, fotomuntaiak aukera ematen dit bururatzen zaizkidan ideiak plazaratzeko, batzuetan zaila delako argazki huts batekin hori egitea, atetik lan-talde tekniko bat ez badago.

barestutako edukia

HELDUENTZAKO ATELIERRAK FAKTORIAN



ARTE ESKOLA

Asteleheneretan, 19:30etik 21:00etara

Prezioa: Bazkideak: 24€/hilabetea
Ez-bazkideak: 31€/hilabetea



YOGA ESKOLA

Astearteetan,
19:30etik 21:00etara

Prezioa:
Bazkideak: 24 €/
hilabetea
Ez-bazkideak: 31€/
hilabetea



PILATES ESKOLA

Asteazkenetan, 19:30etik 21:00etara

Prezioa: Bazkideak: 24€/hilabetea
Ez-bazkideak: 31€/hilabetea



GORPUTZAREN OSASUN ESKOLA

Ostegunetan, 19:30etik 21:00etara

Prezioa: Bazkideak: 24€/hilabetea
Ez-bazkideak: 31€/hilabetea

EUSKARA ESKOLA ARINAK HELDUENTZAT

Ordutegiak: Taldearen arabera antolatuko dira baina astegunetan eta goizez izango dira.

Prezioa: Bazkideak: 20€/hilabetea
Ez-bazkideak: 30€/hilabetea



ANTZERKI ESKOLA

Eskolaren ordutegiak osatzen den taldearen arabera antolatuko dira, astean behin, 2 edo 3 orduko sormen eta ikasketa saioetan.

Prezioa: Bazkideak: 20€/hilabetea
Ez-bazkideak: 30€/hilabetea

IZEN EMATEAK: WWW.FAKTORIA.EUS
IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA:
IRAILAK 28, ASTEAZKENA

www.faktoria.eus
faktoria@aiaraldea.eus
688 647 942
Errotari kalea 4-8, Laudio (Araba)

F

kultura

Laudioko bideo rallya, abian



Parte hartzaileek larunbatera arte izango dute grabatzeko. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hezkuntzaren esparrutik ikus-entzunezkoetara salto egingo du Kirikiñok datozen egunetan. Bideo rallya antolatuko dute aisialdi taldeko ki-deek, Laudioko Udalaren laguntzarekin. Bihar (osteguna) irekiko dute izen ematea, 18:00etan. 688 726 665 telefonora deitu edo mezua bidali beharko da inskribatzeko.

Parte hartzaileek larunbatera arte izango dute lanak entregatzeko epea. Izan ere, egun

horretan proiektatuko dituzte bideo guztiak, 12:00etan Aldai plazan, Euskararen Egunaren testuinguruan. Jarraian egingo dituzte bozkaketa eta sari banaketa.

Ikus-entzunezkoek bi baldintza baino ez dituzte bete beharko: euskara hutsezizatea eta hiru minutuko gehienezko iraupena izatea. Gaia, aldiz, libre izango da.

Antolatzaileek zehaztu dutenez, 100 eurotan baloratutako bi sari emango dizkiete irabazleei.

Adarren erakusketa berria prestatu du Jose Antoni Alaña artisau aiarrak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Juan Antonio Alañak erakusketa berezia prestatu du, eta iragan igandeko Artziniégako Antzinako Azokan aurkeztu zuen aurreneko egingandako lana. Aiarrak aitagure otoiak dituzten brontzezko zatiak eta adarrak jarri ditu ikusgai, 50 guztira. Gehienak, 46, adarrak izango dira eta elementu guztiak berak landu ditu.

Idea Jerusalemgo Olibondoen Menditik atera du. Izan ere, hiru aldiz egon da aiarrak Palestinan eta han ikusi du 165 aitagureko erakusketa. Horretan oinarritu da berea osatzeko eta han eskuratu ditu grafia guztiak; arabiarra, siriarra, txinatarrak...

Hizkuntza gutxituak

Alaña munduan zehar zabaldu diren zenbait hizkuntza

baztertu ditu bere hautaketa egitean (ingelesa eta gazteiera, adibidez), gutxituak lehenesteko. Esaterako, Iberiar Penintsulatik portugesa, katalana, galiziera, asturiera eta euskara aukeratu ditu. Gainera, euskaraz bizkaieraz eta batuaz idatzi ditu. Ameriketako hainbat hizkuntza ere landu ditu: txerokia, aimara, kixua, maia...

Euskal erromesak

Alaña historia bitxia gehitu du Palestinan dagoen euskarazko aitagureari buruz. Hain zuzen, 1902an utzi zuten han euskal erromesek kopia eta dirudunen ekarpena ez izateko -markes batena edo Neguriko burgesiarena-, fededunek 50 zentimoko dohaintzak baino ez zituzten onartu, gehienez. "Modu horretan nahi zuten aberatseke bereganatzea ekimena eta herrikoia izatea", argitu du aiarrak.

'Strata' bilduma desfile batekin aurkeztuko dute Artziniéga

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Strata bilduma aurkeztuko dute urriaren lehen Artziniégan. Artziniéga Museoan egingo dute ekimena urriko lehen larunbatean, hots, hilaren lehen. "Strata bilduma moda desfile batekin aurkeztuko dugu", adierazi du Artziniéga Museoak sare sozialetan. Aurreratu dutenez, museo etnografikoaren anfiteatroa erabiliko dute horretarako, "jakina, guztiok zaudete gonbidatu".

"Artziniégaren 750. urtemuga aprobetxatuta, Erdi Aroan inspiratu dituzte euren janzkerak"

tuta". Strata bildumari dagokionean, Creanavarrako ikasle talde batek eginiko lana dela aurreratu du herriko eragileak: "Artziniégaren 750. urtemuga aprobetxatuta, Erdi Aroan inspiratu dituzte euren lookak, baina abangoardistago". Gainera, desfile musikatua izango da: zuzeneko musika eskainiko baitute Nerea Quincocesek eta Jordi Arcusak. "Bilduma garai hartako gizarte klaseen errepaso da, garai hartako jantziei, ehunei edo xehetasunei keinu eginez", erantsi dute.

**IRAILA - ABENDUA
2022**

*Emakumeok ardatz, zazpi pieza
hamaika modu sorkuntzaren bizipena gorpuzteko*

EMAKUME SORTZAIILEEN ZIKLOA

**BAKARRIZKETA, BERTSOLARITZA, POESIA, MUSIKA,
DANTZA, ANTZERKIA, HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA**



KILIMATERIOA
(Aurrestrenaldia)
**BAKARRIZKETA
ETA BERTSOLARITZA**
IRAILAK 30, 20:00



Emanaldien ostean tokiko produktu ekologikoekin afaltzeko aukera egongo da.
Erreserba: 722 84 67 62.

www.faktoria.eus [f](https://www.facebook.com/faktoria) [@aiaraldeaekintzenfaktoria](https://www.instagram.com/faktoria)
kultura@aiaraldea.eus · 633 517 383 · Errotari kalea, 4-8 LAUDIO (Araba)

araba álava
foru aldundia diputación foral





hezkontza ATELIERRAK

HAURRAK

Artea eta eskulanak

NOIZ? astelehenero

SORMENA ETA ARTEA LANDUKO DITUGU, MATERIAL EZBERDINAREKIN DIZIPLINA EZBERDINAK JORRATUKO DIRA ETA OBJEKU EZBERDINEN SORKUNTZA EMANGO DA. ESKULAN EZBERDINAK EGINGO DITUZTE HAURREK.

ORDUA: 17:30-18:30 (jaiotze urtea 2015tik 2020ra)
18:30-19:30 (jaiotze urtea 2014tik 2010ra)

Irakurle kluba

NOIZ? asteazkenero

IRAKURTZEKO ZALETASUNA PIZTEKO ATELIERRA DA. IPUINEN ETA LIBURUEN MUNDUAN SARTUKO GARA, PERTSONAIK DESKUBRITU, TOKI EZBERDINETARA BIDAIATU ETA GUK ERE GURE BARRUAN DITUGUN TOKI MISTERIOTSUAK ATERA EGINGO DITUGU. IPUINEN ETA LIBURUEN MUNDUAREKIN GOZATZEKO ATELIERRA IZANGO DA.

ORDUA: 17:30-18:30 (jaiotze urtea 2015tik 2020ra)
18:30-19:30 (jaiotze urtea 2014tik 2010ra)

PREZIOA:

Bazkideek 24€ hilabetean
Ez bazkideek 32€ hilabetean

* Taldea sortzeko 10 LAGUN behar dira

** Ikasturte osoan zehar apuntatu behar dira haurrek, ordainketa HILABETEAN edo ordainketa BAKARREAN egin daiteke

*** BAJA EMATEKO hilabete bateko aurrerapenarekin abisatu beharko da.

Dantza eta gorputz adierazpena

NOIZ? asteartero

DANTZA, ANTZERKIA, PSIKOMOTRIZITATEA... GORPUTZA ZENTROAN JARRI ETA HAINBAT JARDUERA PROPOSATUKO ZAIZKIE PARTE HARTZAILEEI. GORPUTZAREKIN JOLASTUKO DUGU HAINBAT DINAMIKA AURRERA ATERAZ.

ORDUA: 17:30-18:30 (jaiotze urtea 2015tik 2020ra)
18:30-19:30 (jaiotze urtea 2014tik 2010ra)

Sukaldaritza

NOIZ? ostegunero

TOKIKO ETA PRODUKTU EKOLOGIKOEKIN EGINDAKO JAKI GOZOAK SUKALDATU ETA SORTZEKO AUKERA IZANGO DUTE ATELIER HONETAN. JAKI EZBERDINEZ GOZATU, ZAPORE BERRIAK DESKUBRITU, ETA GARAIAN GARAIKOA JATEKO AUKERA IZANGO DUTE. EGUN BAKOITZEAN ERREZETA BAT EGINGO DUTE ETA ETXERA ERAMAN.

ORDUA: 17:30-18:30 (jaiotze urtea 2015tik 2020ra)
18:30-19:30 (jaiotze urtea 2014tik 2010ra)

IZEN EMATEA

722 22 75 32 (Aritz)

www.faktoria.eus/events



kirola

“Herri kirolek badute beste kirolek ez duten zerbait engantxatzen zaituena: harreman estua”



NAROA YARRITU GARCIA (Artziniega, 1997) BIZINDAR HERRI KIROLLEN TALDEKO KIDEA DA. INGUDEAN, TRONTZAN ETA SOKATIRAN ARITZEN DA NORMALEAN. ARABAKO INGUDE TXAPELKETA IRABAZI DU ORAINTSU ARTZINIEGARRAK, 84 ALTXALDIKO MARKAREKIN.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Nola iritsi zara herri kiroletera?

Nire izeko (Olatz Yarritu) sokatira taldean aritzen da, eta berak esan zidan probatzera etortzeko, ingudean eta lokotx-bilketan jendea behar baitzuten. Probatzen hasi, eta animatu egin nintzen. Ikusi nuen txinga ez zela niretzat eta trontzara pasa nintzen....

Gaur egun, herri kirolean, zer egiten duzue Bizindar taldean?

Txinga eroatea, zaku-altxatzea, zaku-eramatea, ingudea, trontza, lokotx-bilketa, aizkora eta sokatira. Gaur egun, sei gaude taldean, baina beti dago jende gehiago. Sokatira taldekoek, esaterako, gurekin hartzen dute parte proba batzuetan. Azken finean, txapelketetan bakoitzak hiru proba soilik egin ditzake, nahiz eta guztira zazpi herri kirol izan.

Adibidez, nire kasuan, nik sokatira, ingudea eta trontza egiten ditut normalean. Hala ere, Begoñe dagoenean txingan aritzen naiz, baina gutxitan... Edota, zaku lasterketan (baina zakuak 40 kilo pisatzen ditu eta nik 50). Kirolariak garenoi berdin zaigu zer egin: ni aldatzen joaten naiz, baina ingudea izaten da nire proba finkoa (eta beste bi probak entrenatzailerak erabakitzen ditu, taldearen beharren arabera).

Zer dute berezia herri kirolek zuretzat?

Ni futbolaria naiz, eta honek badu zerbait beste kirolek ez dutena. Ez dakit zer den, baina sekulakoa da. *Crosfitarekin* parekatu daiteke: gorputzarekin zure buruaren aurka lehiatzen zara, eta era berean, taldearen alde egiten duzu; zure lanak eta emaitzak taldean duelako eragina. Nire aitek ere beti egin ditu herri kirolak. Gure kirolak dira, eta herri kirolak badu zerbait berezia beste kirolek ez dutena.

Gazte ugari zaudete Bizindar taldean. Bada harrobirik?

Bai, belaunaldi aldaketa egon da, gazte berri batzuk ari dira sartzen. Hori ona da guretzat. Sokatiran entrenatu egiten dute, eta 4x4 lehiaketan hartzen dute parte; baina oso zaila da. Azken finean, batzuk guraso dira orain, besteek lana dute... Ez da horren erraza.

Niri ez zait gustatzen sokatira: oso gogorra da, dena da burua. Nahiago ditut herri kirolak, sokatira baino.

Nolakoa da zuen denboraldia?

Ez da bukatzen, ezberdina da. Denboraldia, berez, ez dago lehiaketak dira. Udan egiten dira txapelketak, gainera, jaien tes-tuinguruan...

Euskal Herriko ingude txapelketa, esaterako, Berangoko festetan izan zen. Arabako txapelketa ere Gasteizko Ama Zuriaren jaietan izan zen. Urtean zehar ere badira zitak: maiatzetik ekainera arte, taldekako txapelketak egiten ditugu asteburuetan (talde batek bestearen kontra). Horrez gain, erakustaldiak ere izaten ditugu.

Herri kirolak taldean ala banaka, nola prestatzen dira?

Ostegunero joaten gara Artziniegako kiroldegira: taldeka pres-tatu behar dira herri kirolak, baina bakoitzak bere lana du. Zaku altxaketarako aurten erosi-ko dugu guk azpiegitura, frontoian kokatu eta bertan egoteko.

Geroz eta emakume gehiago zaudete herri kirolean...

Bai, geroz eta parekatuago dago. Harrijasotzaileen artean ere emakumezko asko daude orain, eta pentatloietan ere. Hori garai batean pentsaezina zen.

Bizindar taldearen zirkuitua zer da, probintzia mailakoa, Euskal Herrikoa edo nazioartekoa?

Gure taldea Araba mailan aritzen da, baina Euskal Herriko txapelketetan ere hartzen dugu parte banaka. Horrela ibili nintzen ni Euskal Herriko ingude txapelketan. Laudioko jaietan, adibidez, Arabako txapelketa jokatu zen abuztuan.

Nola ikusten duzu herri kirolen egoera Aiaraldean?

Handitzen doaz, etenaldi txiki bat egon bada ere. Partaideei dagokionez, Euskal Herriko ingude txapelketan 13 emakume egon ginen (*crosfitetik* etorritakoak gehienak), eta esan zutenagatik, beste batzuetan Araban 3-4 emakume egon dira.

Nire lehenbiziko txapelketa izan zen, eta Alberto entrenatzailerarekin joan nintzen. Miriam Alava eta ni joan ginen, eta podium gutzia aldatu genuen.

Esualdean bada harrobirik?

Bai. Gurekin aizkoran aritzen dena Belandiakoa da, eta 19 urte ditu (oso gaztea da). Aiarako jendea ere badago.

Jendeak enborrak ematen dizkigu entrenatzeko, nahiz eta txapelketetan antolatzaileek jartzen duten. Hala ere, asko nabaritzen

da materialaren aldea, trontzan kasu (eta aizkoran enborra oso garestia da, eta behin bakarrik erabili daiteke).

Herrien artean baduzue sare-rik?

Bai, herri kirolen txapelketetan izena eman ostean, bi multzo egiten dira 4-5 talderen artean. Multzoka lehiatzen gara, beti asteburuetan, eta irabazten duenak gora egiten du sailkapenean. Herri kirolak berpizteko egin zuten hori, eta oso polita da ikusteko: nik 25 urte ditut, beste batek 60, eta nire taldekideak 40-50 urterekin seme-alabak ekartzen ditu.

Herri kirolek badute beste kirolek ez duten zerbait engantxatzen zaituena: harreman estua. Horrez gain, asko animatzen dugu elkar: froga galdu edo irabazten baduzu ez da ezer gertatzen, eta taldekideak zein publikoa beti dau- de animatzeko prest.

Nire lehen egunean -zaku eroa- tean ibili nintzen- bukatze- ar nengoela (irabazten nindoan gaine- ra) erori egin nintzen. Ez dut ahaztuko inoiz: kiroldegi osoak animatu ninduen.

“Ostegunero joaten gara Artziniegako kiroldegira: taldeka prestatu behar dira herri kirolak, baina bakoitzak bere lana du”

Zer ematen dio Artziniegak herri kirolari? Eta alderantziz?

Gauza asko, horien artean, herritarrak benetan ezagutzeko aukera. Niretzat taldeko asko herrikoak ziren, baina ez lagunak. Orain, taldekide guztiak dira lagunak, eta beti zainduko ditut. Bizindar taldeak, aldiz, izena eman dio Artziniegari. Sokatira- ko taldeak munduko txapelketan parte hartu zuen. Arabako herrietatik gabiltzanean, Artziniega ezagutarazten dugu.

Lau urte daramatzazu herri kirolean. Zein da zure erronka edo ametsa?

Pentatloi bat egitea gustatuko litzaidake. Lagun batekin hizketan egon naiz, eta agian animatuko gara, nork daki! Harria jasotzea da konplikatuena, baina auskalo! Hurrengo urtean emakumezkoen trontza lehiaketan parte hartzen saiatuko gara. Kirola gustuko dugunoi berdin zaigu zer egin ondo eta pozik bagaude.

Artziniegan “ez hain ohiko” kirolei atea zabaltzen ohituta zaudete...

“Txapelketetan bakoitzak 3 froga soilik egin ditzake, nahiz eta guztira zazpi herri kirol izan. Adibidez, nire kasuan, nik sokatira, ingudea eta trontza egiten ditut normalean”

Bai, herri kirolak beti egon dira Artziniegan. Nire aitak sokatiran eta txingetan hartu zuen parte; eta hori beti geratzen zaizu hor. Nire amonak dio zure pisua baino gehiago hartzen baduzu txingetan, ez zarela hazten (barreak). Gure gurasoak kirolariak izan dira, eta orain hori esatea zaila da: askok ez dute aukera hori izan.

Gaztea zara. Tradizioari lotu- tako kirola “gertuko” sentitzen dute gazteek? Zein mezu zabal- duko zenuke zentzu horretan?

Probatu, eta kirola gustuko baduzue gustatuko zaizue. Herri kirolak normalean bakarkako kirolak dira, baina taldean dago gakoa. Horrek zure emozioak eta garapen pertsonala hazten laguntzen du.

Zer egin behar du probatu nahi duenak?

Artziniegara etorri, beti izango ditugu atea zabalik nahi duena- rentzat. Jende ezaguna gara, eta ostegunetan elkartzen gara kirol- degian. Bestela, Bizindar taldeko edonorekin jarri harremanetan eta animatu!



kirola

“Oso gogorra izan da Wodcelona nazioarteko txapelketa, baina pozik nago”



BARTZELONAN IGARO DU ASTEBURUA **OSCAR ACEBEDO HERNANDEZ**ek (Laudio, 1990) CROSSFIT EGOKITUKO WODCELONA NAZIOARTEKO TXAPELKETAN PARTE HARTZEN.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Wodcelona nazioarteko txapelketaren lehen edizioan parte hartu zenuen asteburuan. Zer moduz?

Oso gogorra izan zen txapelketa. Ez nuen aukera handirik izan, pisu gehiegiri egin behar izan bainion aurre. Azkena geratu naiz, munduko txapelketarako sarbidea zelako. Baina ez zait axola: beste batean hobeto egingo dut eta aurrera begirako ikasbide moduan hartzen dut. Nire helburua ondo pasatzea izan da gehienbat.

Duela bi hilabete eta erdi egin zen sailkapen prozesua. Bideo bat bidali behar izan genuen hainbat proba eginez. Hainbat kategoria daude, eta bakoitzean 10 gizon eta 10 emakume daude. Baina hainbat kategoriatan gutxiagok parte hartu zuten. Gauzak hala, gizonak eta emakumeak batu zituzten talde berean.

Euskal Herritik hiru kide ginen joatekoak, baina azkenean bi joan gara lehiazera.

Zertan aritu zinen zehazki?

Arratsaldeko ordubietan hasi zen lehiaketa, ostiralean. Arratsaldeko seiatararte iraun zuen. Larunbat eta igandean, aldiz, goizeko zortzietatik arratsaldeko seiak arte aritu ginen, baina kategoria guztiak batera. 5-12 minutuko sei lehiaketa egin nituen guztira.

Noiz hasi zinen *crossfit* praktikatzen?

Abenduan hiru urte beteko dira *crossfit* praktikatzen hasi nintzenetik. Oso burugogorra naiz. Asebier erakundean nengoen, eta *crossfit* ariketa batzuk egitea proposatu zigiten. Bi profesional etorri ziren saioa dinamizatzen, @houseofmovemente enpresakoak. Horrela hasi nintzen, kasualitatez. Egun batean esan zidaten ondo moldatzen nintzela, eta lehiaketaren batean parte hartzea proposatu zidaten. Nik baietz esan nien, probatzeko. 2020an ezin izan nuen gauza askorik egin, koronabirusa zela eta. 2021ean aurkeztu nintzen lehenbiziko aldiz *Crossfiteko* open lehiaketara.

Ondo moldatu nintzela esango nuke. Aurten, aldiz, Wodcelonara aurkeztea proposatu didate, eta ez dut zalantzarik izan.

Beste kirolen bat praktikatzen duzue?

Bai. Une honetan 32 urte ditut, eta betidanik gustatu izan zait kirola. Ez naiz inoiz koldartu. Futbola, saskibaloia... denetarik praktikatu dut. Eskolan denetarik egiten nuen gimnasia orduan: soka batetik igotzea, salto egitea...

Elbarritasunak ez dizu mugarik jarri?

Ez. Niri beti hezi naute ezintasun hau ezintasun bat izango ez balitz bezala. Ni nire esku dagoen guztia egingo dut egin nahi dudana hori egiteko.

“Asko engantxatzen du ‘crossfitak’, eta pila bat igotzen du laguntasuna eta norberarekiko kofiantza”

“Gurpildun aulkian gaudenak bi kategorietan banatzen gara: altxatu ezin direnak alde batetik eta altxatu daitezkeenak bestetik.”

Zein kategoriatan aritzen zara?

Hainbat kategoria daude *crossfit* egokituan: itsuena, gorrena, burmuineko paralisia dutenena, beso bat moztuta dutenena, hanka bat moztuta dutenena... Gurpildun aulkian gaudenak bi kategorietan banatzen gara: altxatu ezin direnak alde batetik eta altxatu daitezkeenak bestetik. Azken horien artean kokatzen naiz ni. Jaiotzez dut arantza bifidoa deritzon gaixotasuna. Aulkitik altxatu naiteke eta etxean gai naiz makulu gabe aritzeko. Kaletik joateko, aldiz, aulkia edo makuluak balitzen ditut, ibili beharreko distaziaren arabera.

Zer du crossfitak beste kirolek ez dutena?

Asko engantzatzen duela, eta laguntasuna eta norberarekiko kofiantza pila bat igotzen duela.

Lehen Bilbon entrenatzen zenuen, baina Laudiora mugitu berri zara, Gorobel Crossfitera. Zer moduz?

Eguneko entrenamendua lehen aipatutako pertsonen prestatzen didate, nahiz eta orain Laudion entrenatu. Primeran nago, bidaiatu gabe eta gauza bera egiten, ezin dut gehiagorik eskatu.

Hasiberria bazara astean egun bat entrenatzea gomen datzen dizute. Ondoren, bi saio egitea proposatzen dizute. Nik une honetan hiru aldiz entranatzen dut astean. Iku-siko dut etorkizun batean ea gehiago entrenatu edo ez.

Normalean lehen eguna bultzaketak egitera bideratzen dut. Bigarrenetan gauzak hartzen aritzen naiz, eta hirugarrenean mugimendu funtzionalak jorratzen ditut, gorputz egitura mantentzeko. Denerarik egiten dut horrela.

Zer asmo dituzu hasi berri duzun ikasturtera begira?

Oraindik ez dut beste txapelketarik buruan. Entrenatzen jarraituko dut, eta txapelketa berriren bat ateratzen bada joatea baloratuko dut.

“Ni beti hezi naute ezintasun hau ezintasun bat izango ez balitz bezala”

“Ez naiz inoiz koldartu. Futbola, saskibaloia... denetarik praktikatu dut. Eskolan denetarik egiten nuen gimnasia orduan: soka batetik igotzea, salto egitea...”



kirola



“Atezain moduan ziur aritzen naiz esparru guztietan eta aldagelan txantxazalea naiz”

SARAI GANDARIAS GORDON (Luiaondo, 2007) GAZTEA GORANZKO IBILBIDEA EGITEN ARI DA FUTBOLAREN MUNDUAN. ESKUALDEKO ZENBAIT TALDETAN IBILI OSTEAN, ALAVES KLUBERA HELDU ZEN ETA 15 URTEREKIN DEBUTA EGIN DU FILIALAREKIN.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Jadanik egin duzu debuta Alaves taldeko filialean, nola izan da hori?

Udan hasi nintzen Alaveseko bigarren taldearekin, nahiz eta kadete kategoriako jokalaria naizen. Hain zuzen, euren atezain titularrak lesioa izan zuen eta filialean behar ninduten. Liga hasi behar zen aste berean, filialeko beste atezaina ere lesionatu zen. Egia esanda, mina zuela esaten zuen aurretik, baina medikuek aztertu zutenean, ikusi zuten lesioa zuela. Ondorioz, ni izan nintzen atezaina Eibar C-ren kontra.

Nola hartu zenuen egoera aldaketa hori, bat-batean atezain titularra izatea?

Ba apur bat urduritu nintzen, jakina. Alavesera heldu nintzenean ez nuen uste 15 urterekin filialean jokatu nuenik.

Are gehiago, ez nekien 15 urterekin posible zenik Euskal Ligan jokatzera.

Orduan, filialean arituko zara denboraldi honetan?

Printzipioz, nire taldea kadeteen kategoriakoa da, baina filialean, Euskal Ligan, ere jokatu dut beharra dutenean. Kadete kategorian ez dugu txapelketa hasi, aldiz, Euskal Ligan partida bat irabazi dugu eta bestea galdu.

Nola bukatu duzu Alavesen? Zer ibilbide egin duzu orain arte?

Amurrioko Etorkezuna talde mistoan hasi nintzen, bi denboraldiz Altzarraten jokatu nuen eta beste bat Ugaon.

Gero Alavesek deitu ninduen, atezaina behar baitzuten. Joan nintzen probak egitera duela hiru denboraldi eta hartu ninduten. Hau da nire laugarren denboraldia. Aurreko denboraldian lortu genuen liga irabaztea.

Ohitura aldetik, hiru egun entrenatzen dugu astero Gasteizen eta partida bat jokatzeko. Denboraldi honetan agian bi izango dira astero, kadeteekin eta filialarekin egongo naizen bitartean.

Eta filialean zein da helburua?

Printzipioz, xedea da liga irabaztea eta maila igotzea.

Ezberdintasun handia dago kadeteen eta filialaren artean?

Kadeteok 13 eta 15 urte bitarteko adina daukagu, eta filialean 15 eta 25 urte bitartekoak dira jokalaria. Guztiakin moldatzen ari naiz ondo.

Ezberdintasunak anitzak dira, hasteko nire jatorrizko taldean gorputz txikiak ditugu oraindik eta

filialean jokalaria handiak dira. Filialean estrategia eta taktika ere gehiago lantzen da.

“Alavesen aritu baino lehen Amurrioko Etorkezuna taldean, Altzarraten eta Ugaon jokatu dut”

Alavesen jokatzeko duzunetik, nabaritu duzu hobetu duzula?

Zaila da esatea. Aurreko denboraldian zortziko futboleko jokatu genuen. Hau da, zelaia txikia zen eta baita atea ere.

Horrez gain, Ugaon uztean nabaritu nuen egoera oso bestelakoa zela Alavesen, jokatzeko modutik hasita. Entrenamenduak landuagoak dira eta aurreko taldean ez bezala, atezainen entrenatzailea dago Alavesen. Guk eskatzen duguna lantzen dugu eta berak ere ariketak proposatzen dizkigu, guk hobetzeko.

Egunero egiten ditugu gauza ezberdinak. Dena den, entrenatzaileak esan dit ondo moldatzen ari naizela atearen neurri berrietara.

Atezain moduan, zein ezaugarri duzu nabarmentzekoa?

Oinekin oso ondo jokatzeko dut eta segurtasun handia daukat. Ziur aritzen naiz esparru guztietan. Aldagelan txantxazalea naiz, gogoko dut giro ona egotea.

Helburua jarri diozu zure buruari aurten?

Ahal badut, filialeko postu titularra borrokatzea, baina, printzipioz, filialean bigarren atezaina naiz eta kadeteetan lehen atezaina. Ahal badut, bietan egongo naiz. Momentuz, filialarekin entrenatzen dut eta kadeteekin ondo hartu dute hori. Epe ertainean eta luzean ez dut ezertan pentsatzen, soilik jolastean.

Irailaren 17an egin zuen Gorobel taldeak parapente topaketa. Antolatzaileek adierazi dutenez, 160 lagun baino gehiago hurbildu ziren Gorobeiko zein Tertangako inguruetara.

Urduñako zerua, parapentelarien topagune



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

"Diziplina ugariko piloto mordoa aireratu ziren larunbatean goizean goizetik". Irrikaz bizi izan zuen Gorobel parapente taldeak zapatuko topaketa. Sare sozialetan aipatu dutenez, minibelak izan ziren lehenbizikoak Gorobeiko parajeak zeharkatzen, akrobelekin batera: "Euren abiadura eta peripeziekin piloto zein bidaiariak txunditu zituzten, aleroek euren materiala prestatu bitartean".

Haizeak, baina, ez zuen denen

gogotik astindu: "Eguerdian pittin bat baretu zen haizea, eta bela batzuk aprobetxatu ahal izan zituzten. Azkenean, eszenatoki magikoa geratu zen: delta hegalekin, parapenteekin, bela txikiekin eta dronekin zeruan jostari. Eta, guzti hori familiako abilenen zertzelada akrobatikoekin lagunduta".

Gorobel mendilerroan ez ezik, Tertangako eskola zein zelaietan ere egin zuten topaketa. Horren adibide izan zen bertan burututako parrillada, edota Orozkoko garrafa dastaketa. "Bigarren edi-

zio honetan, Pikaro Kopara ez ziren asko animatu, baina maila altu zegoen".

Gorobel Taldeak aipatu duenez, orotara, 160 lagun inguru hurbildu ziren ekimenaz gozatzeraz: "Igandean ere batzuk hegan egiteko aprobetxatu zuten; oraingoan apenas zegoen haizerik, baina denontzako eguna izan zen, urrutetik Urduñara bisitan etorri zirenek Urduñatik bueltaxka bat emateko egun paregabea. Miles-ker guztiei gure hegan egiteko eremura beste behin ere gerturatzegatik eta gozatzeagatik".



kirola

MENDIZALETASUNA

Piriniotan egon dira asteburuan Txarlazo mendi taldekoak



Auñamendi eta Orhi mendiak igo dituzte. **Txarlazo Mendi Taldea**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

asteburuan. Eguraldia la-
gun, giro ederrean osatu zu-
ten zeharkaldia.

Auñamendi eta Orhi tonto-
rrak zapaldu dituzte Urduña-
ko Txarlazo mendi taldekoek

Arrankudiaga-Zolloko Ma-
txinkorta taldeak ere bisitatu
du mendikatea.

PILOTA

Laudion jokaturako Euskal Herriko Bote luzeko txapelketa



Irailaren 17an izan zen norgehiagoka. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Bote luzea
Bote luzea pilota jokoa-
ren modalitatea da ezagu-
tzen direnetatik zaharre-
na. Eskuarekin soilik joka-
tzen da, eta luzetara. Fun-
tsean, aurkariak paretari
begira beharrean, aurrez
aurre kokatzen dira, eta pi-
lotak ez du hormarik jotzen
errebotean ez bada. Egun,
plaza edo frontoietan joka-
tzen bada ere, antzina lan-
da edo soroetan egiten zu-
ten. Horregatik, pilota soro
edo soropil gisa ere deitu
izan da.

Aurrera darrai Euskal He-
rriko Bote luzeko txapelke-
tak. Maeztun izan zen lehen-
biziko saioa, eta lurraldeen
arteko partidei ekin diete
orain. Hala, Laudioako La-
muza frontoian burutu zu-
ten Iparraldeak eta Ara-
bak euren arteko erronka.
12:00etan izan zen hitzor-
dua, eta bertan aritu ziren
lehiatzen goizean zehar.
Herriaren Pilota Elkartek
sare sozialetan eman du es-
perientziaren berri: "Par-
tida ederra Arabak eta Ipa-
rraldeak eskaini digutena".

Arabako taldean Herria-
ren elkarteko bi jokalarari
dira parte hartzen: Oier Pi-
con eta Aimar Amondo. Ipa-
rraldeko aurkariak, berriz,
Senperekoak izan ziren, el-
kartek zehaztu duenez.

XX. mendearen erdial-
dean galdu zen Euskal He-
rriari, antzina oso ezaguna
eta zabaldua izan bazen ere.
Zuberoan mantendu zen ho-
bekien, eta Valentzian (Espa-
ña) ere oso antzekoa
den jokoa dute, Ilargues ize-
nekoa, zenbait ezberdinta-
sun badituzte ere.

TXIRRINDULARITZA

Gotzon Martin txirrindularia Australiara joango da Munduko Txapelketan lehiatzera



Gotzon Martin, artxibo irudi batean. @FundacCiclisEusk

Testua
Aitor Aspuru Saez

Gotzon Martin txirrindulari
orozkoarrak amaiera ona eman-
go dio urte gorabeheratsuari. Izan
ere, maiatzean istripu oso larria
izan zuen eta, hala ere, lortu du
Australiako Munduko Txapelke-
tan parte hartzea.

Berez, Euskadi Fundazioak atzo
jakinarazi zuen Espainiako hauta-
tzaileak aukeratu duela Orozko-
ko kirolaria Wollongong hirian
lehiatuko den txapelketan ego-

teko. Proba igandean hasiko da
eta puntako hainbat profesional
egongo dira hitzorduan, Mathieu
Van der Poel, besteak beste.

Gotzon Martinek pozik hartu du
berria: "Hau ez da egunero ager-
tzen den aukera eta esperientzia
gozatzea joango naiz". Halaber,
Martinek azaldu du taldeak eska-
tzen diona egingo duela.

Sasoian

Orozko kirolariak aitortu
dio Aiaraaldea Komunikabidea-
ri ez zela egoera onenean heldu

Espainiako Vueltara, uztailean
igo baitzen berriro bizikletara:
"Lesioaren ondorioz, asko kosta-
ta itzuli nintzen entrenatzera eta
ez nuen tartea izan lasterketa nik
nahi nuen moduan prestatzeko".

Dena den, bere parte hartzea
proba horretan onuragarria izan
da: "21 egunez lehiari aritu ostean,
uste dut sasoi onean helduko nai-
zela Munduko Txapelketara eta
espero dut partaidetza polita iza-
tea". Hori dela medio, txirrindu-
lariak gogo askorekin egingo dio
aurre erronkari.

MENDIZALETASUNA

Goizale aterpearen jaia ospatuko dute asteburuan Mendiko Lagunek



Goizale aterpea. **Mendiko Lagunak**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Goizale aterpearen jaia ospa-
tuko du Amurrioko Mendiko La-
gunak Taldeak datozen urriaren
1ean eta 2an.

Larunbatean Lendoñoko apar-
kalekutik abiatuko dira Tologo-
rriko Ponatoko pagadian dagoen
aterpera. Goizean auzolanean
atonduko dute eraikina, eta, he-
rri bazkariaren ostean, herri kirol-
ak eta arrabio espedizioa egingo

dute. Iluntzean, aldiz, parrillada
eta erromeria egongo dira.

Igandean ere aterpean jarrai-
tuko dute. 9:30ean jarri dute ber-
tara igotzeko deialdia Lendoñoko
aparkalekutik. Galanperna das-
taketak eta igel-toka txapelketak
osatuko dute goizeko egitaraua,
eta bazkariaren ostean abesba-
tzarekin itxiko dituzte ospakizu-
nak.

Otorduetarako izen ematea
www.mendikolagunak.eus hel-
bidean egin daitezke.

herriko plaza



Txabi

Zorionak!!!! Hamarkada berria aurretik! Asko bizi eta gutxiago lan egin!! Maite zaituguuu Txabi!!

Lagunak



Edorta

Zorionak Edorrr! 30 langa igarota, zulotik geroz eta gertuago! Ondo pasa eta aurrera seg

Lagunak (edo halako zeozer)



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urriaren 5ean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ZAILA

				6	2	4		
9		1		8				3
2					4		9	
8	9							1
					1	9	5	
	1			5				4
		2		4		6		9
	6	4			8	1		7
					7	5		

ERRAZA

				2	7	5		
2		5			9			
3		4		6				
						7	8	
9		7	8		2	6	3	4
8	3		6					
			2		3	4		8
5	2		4	9	6			7
6							5	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Azaoraren 19ko Amurrioko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoa ikusteko sarrera zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Azaroaren 19an ospatuko den finalaurrekoa ikusteko bi sarreren zozketa


Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** urriak 14, 13:00etan.

IRAKURKETA GUNEA

UNTXITXO TXURIA

Idazlea: Xoxe Ballesteros
Argitaletxea: Pamiela

PortugalEko betiko istorio baten moldaketa dugu hau. Modu jostagarrian idatzirik dago, errimekin, onomatopeia ezberdinekin. Barrea eragiteko ipuin jostagarria da, gainera oso marrazki landuekin lagunduta dator.



AINHOARI GUTUNAK

Idazlea: Joseba Sarrionandia
Argitaletxea: Elkar

lhesean etxe batean ezkutaturik bertan bizi zen haurrari idatzitako ezkutitzen batura da liburua. Irakurtzeko istorio laburrak dira, ohikoan gertatu ahal diren gauzen ingurukoak.



JOLAS GUNEA

TANGRAM

AZALPENA:

Betiko jolasa da, askoren buruetara berriz ekarri nahi duguna. Logika matematikoa, espazioaren irakurketa, sormena... Adin guztietarako eta hainbat ikaskuntza eskuratzeko jostailu bikaina.

Gainera ez da zertan erosi behar, etxean daukagun edozein kartoiekin egingarria da. Interneten hau sortzeko hainbat tutorial dituzue. Zuen sortu eta gozatu puzzle ero honekin.



ETXEKO PERFUMEA



AZALPENA:

1. Lehendabiziko ekintza familian tarte bat hartu, mendira joan eta lore usaintsuak hartzean datza. Basoko naturatik galdu eta loreak bilatu. Orain udazkena gertu dagoela, gero eta gutxiago daude baina badaude.
2. Hartutako lore horiek mortero batean sartu eta txikitu. Txikitu ondoren bote batean jarri. Loreez gain beste gauza usaintsu batzuk bota ahal dizkiezue: kanela, anisa...
3. Bote horretara ura edo alkohola bota. Alkoholarekin usain gehiago sortuko du, baina urarekin ere egin daiteke.
4. Egun batzuk utzi. Noizean behin maraka bat bezala mugitu dezakezue. Ikusi eta aztertu loreek zelan aldatzen duten beraien forma.
5. Egun batzuk pasatuta, iragazgailutik pasatu dezakezue eta loreak bota. Bote polit batean sartu eta zuen etxeko perfumea izango duzue egina.



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA


Hezkuntza

Irailean ospatzen dute batzuk urte hasiera, eta ez da broma, askorentzako hor hasten baitira errutina eta ordutegi berriak. Hezkuntzaz hitz egiteko garaia dela ere ematen du, orain irakurtzen dira egunkarietan haurren ordutegiaren inguruko albisteak, pedagogia ezberdinen arteko talkak, irakasle eta hezkuntzako profesionalen baldintzak...

Aurrekoan Berria egunkarian irakurri nuen hezkuntza izaten dela eztabaida asko ixteko gakoa. Hau da, "arazoa konpontzeko, hezkuntzatik abiatu behar da" bezalako esaldiek bukatzen dituztela eztabaidak. Baina, hezkuntzan dauden hainbat eztabaidak ematen dute behin eta berriz bueltaka etortzen direla.

Pedagogiaz luze hitz egin daiteke, eskola tradizionalaz edo alternatiboez, pedagogo ezberdinek egiten dituzten ekarpenez. Konponbide gabeko zirimolan sartu ahalko ginateke. Eskola eredu tradizionala, gaur egun existitzen bada behintzat, ez dago ondo ikusia, autoritarismoan oinarritzen baita. Alternatibetan, edo aletrnatiba bezala erakusten diren ereduak ere badituzte beraien zuloak, elitismoa eta segregazioa indartzen baitute askok. Hainbat eskolek, apur bat hemendik eta beste apur bat handik hartzen dute, edo hori egiten dutela sal-tzen dute.

Ez dago eredu bikainik, eta egonda ere, sistema oso baten baitan eraikia dagoen einan, hau iraultzea helburu ez badu ez da pertsonen emantzipaziorako nahikoa tresna izango. Hezkuntzan egongo da gauza askoren gakoa, baina aldaketa hezkuntzatik etorriko da, jendartean aldaketa horrokatzen denean, eskolak eta hezkuntza ez baitira jendartetik eta, beraz, sistematik kanpo eraikitzen diren kontu independenteak, sisteman errota dagoen egitura zurruna da hezkuntza. Iraultza beraz toki guztietatik, hezkuntzatik ere bai!



Kirol hau halterofilia omen da. Horrez gain, ba al dakizu zein den pisu-jasotzailearen itzal zuzena?

Itzalak



Kolorezta ezazu zure gustura.


Hara! Jauzi batetik bestera lau gauza galdu ditu Maripurtzilek. Gainera, elementu berri bat agertu da. Ikusten al dituzu?

Jauziak




Zenbat?

Etxeko patata-tortillarik onenak Pellozirik egiten ditu. Hiru patata, lau arrautza, olioa, gatza eta tipula behar ditu tortilla bakoitzeko. Hemen dauzkan gaien arabera, zenbat tortilla aterako zaizkio?



SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura



Lusitana

Rafaela Alves Vivanco

BIZILEKUA
LAUDIO, 1996

BIDAIAREN TOKIA
PORTUGAL

BIDAIAREN XEDEA
INGELES IKASTE IRLANDAR
FAMILIA BATEKIN



PORTUGAL



DESKRIBAPENA

Herrialde transkontinentala da, etengabeko migrazio-mugimenduen lekuko historikoa. Bere lurraldearen zatirik handiena Iberiar penintsulan badago ere, Ozeano Atlantikoko Azoreetako eta Madeirako artxipelago autonomoak ere hartzen ditu barne.

AZALERA

92.212 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

10,35 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Portugesa da oifizala. Mirandesa babestua.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

“Portugaleko guraso askok gorroto dute bere seme-alabek Brasilgo portugaleraz hitz egitea”

Zerk eraman zaitu Portugalerara?

Ingelesa ikastera etorri naiz *au pair* moduan, arraroa badi-rudi ere. Berez, AEBetara joatea zen nire hasierako asmoa, baina bertan ez dituzte 26 urtetik gorakoak onartzen programa honen barruan eta, bestalde, agiriak ateratzea askoz neketsua da. Ez nuen gehiago itxaron nahi. Horrenbestez, Europan geratzea erabaki nuen. Hiru seme dituen Irlandako familia bat nirekin jarri zen harremanetan eta hemen nago maiatzetik.

Nolakoa da irlandar familia batekin bizitzea? Kultur talkaren bat bizi izan duzu?

Ez asko, ondo konpontzen naiz. Hori bai, otorduak dira okerren daramadana. Egurdiko 12:00etan bazkaldu eta

17:00etan afaltzen dugu beti. Oso goiz hasten dute eguna; esaterako, 19:30erako umeak oheratuta daude. Eta ez pentsa asko jaten dugunik. Askotan sandwich batekin nahikoa dute. Euren bizimodua ez da osasungarriena, nire ustez, elikadurari dagokionez behintzat. Ez dute arrain-taketak ez den arrainik hartzen, adibidez.

Hobetu da zure ingeles maila denbora honetan?

Bai, zerotik erdiko-maila batera egin dut salto. Oso pozik nago. Portugalen bi hilabete neramatzala astebete eman nuen Alemanian bidaiatzen, eta hor konturatu nintzen ez dudala jada ingelesez komunikatzeko oztoporik. Udan, gainera, Irlandan igaro ditugu oporrak eta ez dut arazorik izan bertakoekin berba egiteko,

azentua itxia dela esaten badute ere. Ez dut lotsarik izan hizkuntzak ikasteko. Lotsatzen baldin bazara, ez duzu inoiz benetan ikasiko.

Jatorriz brasildarra zara; beraz, hizkuntza partekatzen duzu portugeseekin. Oro har, kultura eta ohiturei begira, oso ezberdinak dira herrialdeak?

Portugaldarrek ezatsegin fama dutela esango nuke. Hala ere, hemen ezagutu dudan jendearen erdia brasildarra da; beti esan ohi dugu Portugal Europako Brasil dela, brasildarrez beterik dagoelako, hain zuzen. Bitxia da baina Portugaleko guraso askok gorroto dute bere seme-alabek Brasilgo portugaleraz hitz egitea. Lucas Neto brasildar youtuber ospetsua ikusten ematen dute eguna gaurko gazteek eta azkenean bere

esaerak errepikatzen dituzte eta azentua imitatzen dute.

Nolakoa da *au pair* umezain baten lana?

Ni pozik nago, baina joan aurretik oso argi utzi nituelako zeintzuk diren nire eginkizunak, batik bat, haurrak zaintzea eta beraiekin jolastea. Familia asko langilez aprobetxatzen dira eta kontratua- ren barruan jasota ez dauden zereginak esleitzen dizkiete. Arreta handiz jokatzeko esango nieke horrelako esperientzia bat bizitzeko interesa dutenei. Zortea izan dut, hortaz. Dena dela, lana gogorra da batzuetan, batez ere, ez duzulako atsedenerako espaziorik topatzen, ordutegi finkoak dituzun arren. Lan egiteko espazioa zure etxea da; bestela esanda, zaintzen dituzun umeak entzuten jarraituko duzu (barreak).

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

